



ARGIA



ZESTOAKO ZAINZA SAREA

Sorreratik eredugarri

24-29. orrialdeak

#2.891 | 2024/11/03 | 4,00 €



**"Sare sozial
komertzialetatik
nola atera pentsatu
behar dugu"**

30 | MARTA G FRANCO



**Euskal Herriko
zentral eoliko
handiena
Aranon**

34 | INGURUMENA



**"Zati autista
gordetzea
zama
handia da"**

38 | MAIDER TRIVIÑO



Abentura erraldoia

Salba dezagun kalejira

Gorka Bereziartua eta Adur

Ipuina **12€**
azoka.argia.eus

Eskaintza berezia urriaren 31ra arte:

→ ARGIAkoa eginez gero liburua opari

argia.eus/eginargiako

→ ARGIAko kidea bazara **10€**-an

azoka@argia.eus +0034 943 37 15 45



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 19 | ENDIKA ALABORT
- 20 | KATIXA DOLHARE
- 21 | SUKAR HORIA
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | BEÑAT MUGURUZA

Finkoak

- 38 | GORPUTZ HOTSAK
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

URKO APAOLAZA / ARGIA-CC-BY-SA



34 | EUSKAL HERRIAN ERAIKI NAHI DUTEN ZENTRAL EOLIKORIK HANDIENA

Nafarroa eta Gipuzkoako lurretan, Urumeako mendietan egin nahi dituzten eolikoen proiektuez hitz egin du Urko Apaolazak Aranoko bi herritarrekin. Enpresak orain arte izan duen jarreraz mintzatu dira, eta herrian eta bailaran nola eta zergatik antolatzen hasi diren azaldu dute.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Zuhaitzen migrazioa dugu oihanek klima larrialdiari aurre egiteko soluzioetariko bat

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | JON LAS HERAS

"Egungo aisialdi ereduak lantokietako praktika birproduzitzen du"

Onintza Enbeita

24 | GIZARTEA | ZESTOA

Herri bat bere zaintza eredu sortzen

Onintza Irureta

30 | TEKNOLOGIA | MARTA G. FRANCO

"Sare sozial komertzialetan inertziak jarraitzen dugu, baina ez gara emaitza onak lortzen ari"

Axier Lopez

46 | KULTURA | PEDRO AXULARREN "GERO"

Iraganeko geroaldia

Gorka Bereziartua

48 | KULTURA

Zuhaitzak askatu du hosto hila

Ainhoa Aldazabal

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Julene Flamarique, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Leire Ibar, Manex Moreno, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,

31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enpreekin batera:





Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan egin ez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**

 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



OLATUKOOP


 Ekonomia sozial eraldatzaileen
sareko kide gara



Ondarea ala zama?

Udalatx menditik desagerrarazi dute kristautasunaren ikur propagandistiko nagusia. Hamar metroko gurutze bat tontorretik kendu izanak eztabaida bizia piztu du inguruko herrietan, batzuk minduta agertzeraino. Euskal Herriko mendiak, eta Gipuzkoakoak bereziki, gurutzez josita daude, gehienak diktadura nazionalkatolikoan jarritakoak. Hamarkadak pasata, batzuek ondarea edo tradizioa ikusten dute horietan, leku pribilegiatuetan utzi beharrekoak. Beste batzuek, aldiz, gurutzeak kentzea espazio publikoa denontzat atseginagoa eta bizigarriagoa egiteko ekintza gisa ikusten dute. Askok nekez ikus dezake mendizaleen omenezko oroigarririk horietan, ezpada Espainiako diktadura faxistaren makuluaren, munduan inoiz izan den pederasten talde antolatu handienaren edo emakumeen eta homosexualen eskubideen aurkako eragile nagusienetakoa botere alardea, leku ikusgarri horietan, Euskal Herriko iruditeri kolektibo eta historikoan mendiek duten pisu handiaz baliatuta. Espazio publikoan dauden gurutzeak botatzea tradizioari jarraitzea ere bada: lehen aldebakartasunez ezarritakoa, orain aldebakartasunez kentzea.

 **Hernio mendiko gurutzea. TOLOSALDEKO ATARIA**  **AXIER LOPEZ**



"Laminoriako parke eolikoak ekarriko lukeen ingurumen eragina ez da onargarria"

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Aixeindar SA enpresak "Laminoria" izeneko zentral eoliko eta fotovoltaikoa eraiki nahi du Arraia-Maeztu, Iruraiz-Gauna eta Donemiliagako lurretan. Proiektu horrek Eusko Jaurlaritzaren ingurumen baimena jasoko ote duen ikusteko dago. ARGIAren eskuetara iritsi da Arabako Foru Aldundiak ingurumen eraginei buruz egindako txostena. Ekainaren 14an bidali zion Jaurlaritzari txosten zorrotz hau eta sendoa da bere ondorioa: "Laminoriako parke eolikoak eraikitzeak eta martxan jartzeak ekarriko lukeen ingurumen eragina kritikoa litzateke, ez onargarria".

Txostena irakurrita, nekez irudikatu daiteke haize-errotak jartzeko leku eze-gokiagorik: EAE osoan nekrofago espezie gehien bizi den eremua da, nekrofagoen Analamendi elikagune babestutik oso gertu dago eta Bonelli arranoaren EAeko habia bakarrak zazpi kilometrora daude. Gainera, Araba eta Nafarroa arteko "aireko pasillo" bat da hegaztientzat.

Nekrofagoen kontzentrazio handiena hemen ematen da. Horien artean daude ugatza (*Gypaetus barbatus*, "galtzeko arriskuan" izendatua), sai zuria (*Neoph-*

ron percnopterus, "zaugarri" izendatua) eta sai arrea (*Gyps fulvus*, "interes bereziko" izendatua). Arabako Aldundiak Jaurlaritzari bidali zion txostenak zera dio: "Horiek denek maiz egiten dute hegana ["Laminoria"] proiektuaren zonaldean, eta zehazki parke eolikoaren eragin-eremuan".

Txostenak oroitarazi du eremu horretan ohikoak diren hegazti harrapari eta nekrofago hauen presentzia kontrastatua dutela hainbat ikerlanek eta irrati bidezko jarraipen telematikoa ere egin zaiela "galtzeko arriskuan" izendatuta dauden hegazti harrapariei: Bonelli arranoari eta ugatzari.

Gainera, eremua nekrofagoen elikadurarako babes eremu gisa dauka izendatua EAerentzat Interesgarri diren Hegazti Nekrofagoen Kudeaketa Planak. Arabako Aldundiaren txostena zorrotz mintzo da: "Parke eolikoak leku horretan martxan izateak modu kritiko eta ez onargarrian eragiten du espezie nekrofago babestuetan". Bertan zentral eoliko bat jartzeak, txosten horren egileen ustez, Hegazti Nekrofagoen Kudeaketa Planaren hainbat puntu ez betetzea ekarriko luke.

Haize-errotak jarri nahi dituzten kopapenetik gertu dago Analamendi: mendi publiko hori egokituta dago hegazti nekrofagoak elikatzeo eta abeltzantzako hondakinak egoki kudeatzeko. Aixeindar SA enpresak bere ingurumen inaktuaren txostenean proposatu du nekrofagoen elikagune hau kentzea, hartara hegazti gutxiago egongo direla.

Arabako Aldundiaren txostenak dio enpresaren irakurketa okerra dela: "Hori ez da onargarria. Irtenbide hori abiatzen da zehatzgabean den premisa batetik, pentsatuta hegazti harrapari eta sarraskijaleen dentsitatea mugitu egiten dela eta parke eolikoaren eragin-eremua erabiltzen dutela elikagunea han dagoelako". Baina alderantziz dela dio txostenak, hau da, elikagunea toki horretantxe kokatzea erabaki zela 2006an, nekrofagoen eta gainerako hegazti espezieen portaera eta lekuen erabilera ikertu ostean. Hegaztien joera horietan gakoak da, txostenaren arabera, Arabako Mendialdearen eta Lautadaren arteko trantsizio-eremua dela leku hori. Analamendi elikagunea leku aproposan dago kokatua, menditsua delako, baso sarriz inguratua dagoelako eta haitzak dituelako: haitzetan egiten dituzte habiak nekrofagoek. GPS bidez jarraipena egin diete ugatzei eta saiei, eta argi ikusi dute badela "aireko pasillo" bat espezie hauek eta seguruena Araba eta Nafarroa artean planeatzen duten beste espezieek erabiltzen dutena".

2018ko urritik 2019ko apirilera bitartean Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak ikerketa bat egin zuen Analamendiko elikagunean, bertara jatera jotzen zuten espezie eta norbanako kopurua identifikatzeko eta zenbatzeko. 124 eguneko ikerketa honetan kamera bidez ziurtatu zen zortzi espezieren presentzia: erroia, belea, mika, sai arrea, miru gorria, sai zuria, sai beltza eta miru beltza. Karrantza eta Valderejoko elikaguneekin alderatuta, Analamendikoa da espezie dibertsitate handiena detektatu zena. Zazpi hilabetetan 40.000 norbanako baino gehiagoren presentziaren datuak badira. ●



Bonelli arranoa. EAeko habia bakarrak Araban daude, Laminoria proiektu eolikitik zazpi kilometrora.

Afari solidarioen alde bildu dira Donostian

ERREDAKZIOA

Urriaren 23tik Donostiako Kaleko Afari Solidarioak (KAS) taldeak ezin ditu eguneroko otorduak eman Egia auzoan. Udal-tzainek jakinarazi zieten, ahoz, antolatzaileei. Baimenik ez zutela eta Donostiako Udalaren erabakia zela esan zitzaizen. Urriaren 21ean, Donostiako Udaleko PPko zinegotziak buru zituen talde batek elkarretaratzea egin zuen janaria banatzeko lekuan, "segurtasun" eske. Ertzaintzak afari solidarioak eskaintzearen aldeko hainbat kide identifikatu zituen momentu hartan. Urriaren 23ko goizean Martin Ibabe Donostiako Hiri Segurtasuneko zinegotziak protestei zilegitasuna eman eta "arrazoi bakarra eta eskusiboa inguru horretan gertatzen ari den segurtasun-arazoa da", adierazi zuen. KASEk erantzun zuen afariak ematen jarraituko zuela.

Egun gutxira manifestazioa egin zuten hiriburuan, *Elkartasunari debekurik ez* lelopean; 2.000 lagunetik gora bildu ziren. Antolatzaileen hitzetan, "faxistek egindako aldarrikapenari hurrengo egunean udalak men egiteak jarrera erreakzionarioa hauspotzen du". Udalari exijitu diote jomugaz aldatzeko: "Bada garaia proletarioak eta migratzaileak etsai gisa seinalatzeari utzi, eta pobrezia estrukturalaren zein migrazioaren kausak eragiten dituzten agenteak etsai gisa seinalatzen hasteko". ●



XALBA RAMIREZ / IRUTXULOKO HITZA

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



BASQUE SOLIDARITY CENTER



Espazio publikoa

Bilboko Alde Zaharreko Korrika batzordeak salatu du udalak 1.500 euroko isuna jarri diela, auzoan egin zuten ekimen bat baimenik gabe antolatzeagatik. Arau-hauste larritzat jo du udalak, eta auzokideek espazio publikoaren erabilera defendatu dute.

Etxebizitza

Alokairuen prezioa mugatzeko arau azaroaren 25ean jarriko da indarrean Ipar Euskal Herrian. 24 udalerritan mugatuko dituzte alokairuen prezioak, Angelun, Baionan, Donibane Lohizunen, Hendaian, Miarrizten, Uztaritzen eta Ziburun, besteak beste.

Etxebizitza

Bizilagunekin plataformak deituta, hiri eredia eraldatu eta herritarren bizi baldintzak erdigunean jar daitezten eskatu dute ehunka lagunek Donostian. Turistifikazioaren eragina, etxebizitzaren eskasia eta garestitzea, eta udalaren jarrera salatu dituzte.

Zangozako meategiak baimenik ez

URKO APAOLAZA AVILA

Euskal Herriko eta Espainiako Estatu meatzeko handiena da Zangozan eta Aragoiko Bal d'Onsellan potasa ustiatzeko Muga proiektua. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak foru erkidegoko eremuaren ustiaketa-baimena bertan behera utzi du, Ekologistak Martxan eta Sustrai Erakuntza taldeen helegite bat aintzat hartuta.

Geoalcali enpresak hiru proiektu edo eskabide egin zituen: Espainiako Gobernuari, Aragoikoari eta Nafarroakoari. Baina auzitegiak dio proiektua bakarria dela, nahiz eta hirutan zatiturik egon, eta horrek albo batera utz ditzakeela meatzeko eragindako balizko hainbat kalte, geologikoak edo langileen segurtasunari dagozkionak barne.

Nafarroako Gobernuako Trantsizio Ekologikoko kontseilari Mikel Irujok esan du meatzeko aurrera ateratzeko Espainiako Estatu 1973ko Meatzeko Legea aldatu beharko litzatekeela, baina ez du argitu epaiari helegitea jarriko ote dioten.

MULTINAZIONALAK ATZEAN

Geoalcaliren atzean Australiako burtsan kotizatzen duen Highfield Resources multinazionala dago. Duela hilabete inguru akordioa sinatu zuen Txinako energia talde handienetakoak diren Shandong Energy eta Yankuang Energy-rekin, proiekturako behar dituzten 600 milioi euroen finantziak lortzeko. Nafarroako Gobernuak akordioa txalotu zuen.

Herri plataformak eta ekologistek salatu dute sismizidatea areagotu eta lur hondoratzeak eragingo litzakeela meatzeko, kutsadura handitzearekin batera.

Enpresak 50 kilometroko luzerako galeriak egin nahi ditu Esa urtegitik gertu, 350 metroko sakoneran. Urtero lau milioi tona hondakin sortuko litzaketeko meatzeko lanek, eta milioika metro kuboko mendi muino handi batean pilatu nahi dituzte, Zangozako herri lurretan. Ur erabilera ere itzela izango dela diote proiektuaren kontra dauden taldeek: 165.000 pertsonen gastatzen dutenaren adina ur beharko du proiektuak, urtero, potasa erauzteko. ●

ANALISIA



Banketea

URKO APAOLAZA AVILA

Iberdrolak 5.472 milioi euroko etekinak izan ditu aurten irailera arte, eta bere aurreikuspenen arabera 2024an errekor berria jarriko du irabazietan: iaz baino %14 gehiago. Repsolek uztaileko 1.626 milioi euro zeuzkan poltsikoan, eta 2023an irabazitako 3.168 milioiak aurten aisa gaudituko dituela dirudi. BBVAk 7.403 milioi euro eskuratu ditu aurtengo 2024ko lehen hiru hiruhilekoetan, eta beraz, honek ere izango du txanpan botilak irekitzeko motiborik urte amaieran.

Energia konpainia eta banku handi guztiak sekulako dirutza irabazten ari dira. "Ezohiko mozkinak" deitzen diete, testuingurua berezia omen delako –Europako Banku Zentralaren interes tasen gorabeherek edo energia krisiak eraginda–, baina urteak daramatzate joera horrekin. Orain, Espainiako Gobernuak bazkide den Sumar alderdiak proposatu du irabazi horiek zergapetzeko tasa berezia betikotzea. Podemosek, ERCK eta EH Bilduk begi onez ikusten dute halako zerbait, izan ere, askoren ustez konpainien bankete milioidunari galga jartzeko modu bat da hori, are gehiago kontuan edukita erraldoi horiek Sozietateen zergarekin apenas ordaintzen dutela ezer.

CEO Espainiako patronala berehala irten da proposamenaren kontra. Repsoleko Josu Jon Imazek ere gogor hitz egin du eta hain gustuko dituen termino horietako bat asmatu du kontrarioa gutxieteko, "populismo fiskala". Eta enpresari jeltkidearen ondoan lerrokatu da EAEko lehendakari Imanol Pradales, irabaziaz zergapetzea ez dela "bidezkoa" esanda. Ez dira gutxi jaso dituen kritikak hitz horien harira –"serbilismo gutxiago" edukitzeko eskatu dio ELAko idazkari nagusi Mixel Lakuntzak–.

Baina enpresa handi horiek badakite adierazpen publikoetatik harago eragiten. *La Vanguardia*-k argitaratu duenez, Repsolek Juntas alderdiari "mehatxu" egin dio, zerga bertan behera uzten ez badute Tarragonan metanola eta bioetanola produzitzeko planta batentzako aurreikusita zuen 1.100 milioi euroko inbertsioa Portugalera eramango duela.

Zer espero genuen? Ibex35ean dauden enpresa gehienek bezalatsu, hauek ere hogeita hamar dirutan saltzen ohituta daude. Ez ahaztu nondik datozen Repsol, Iberdrola, BBVA, Santander, Endesa edo Cepsa. Ezta haien atzean dauden familiak ere. Frankismoaren autarkia garaiko espolioz eta monopoliotik jaten egin zituzten sosak, eta klientelismoan oinarrituriko sistema bat utzi zuten oinordetzan. Laster ikusiko ditugu mugimenduak zerga "leundu" eta azkenerako ezerezean uzteko, banketeak segi dezan. ●

10

urte egin ditu Baionako Adierazpenak. Bake Bideak azpimarratu du Adierazpenak gatazkaren konponketaren alde egindako "ekarpen handia" eta iritzi ezberdinetako aktore politiko eta sindikalak "kontsentsu batera iristeko" ariketa egin izana.

5

udaltzainek baino ez dute egiaztatu beharko euskararen B2 maila, Getxoko Udalak sortuko dituen 10 udaltzain lanpostuetatik. Hala adierazi du udalak.

154

pertsonari aplikatu diete amnistia, ekainean Espainiako Parlamentuan Amnistiari buruzko Lege Organikoa onartu zenetik; bada, horietatik %61 poliziak dira: mossoak, guardia zibilak eta Espainiako Poliziako agenteak.

"Nahi badugu, Gazako asentamenduak berrezarri ditzakegu"

ITAMAR BEN GIVIR

Israelgo Gobernuako Segurtasun Nazionalerako ministroa.

2024-10-22



"MURRIZKETA HONEK ZUZENKI ARRISKUAN EZARTZEN DITU IRRATI ELKARTEAK"

IRRATI LIBREAK

Frantziar Gobernuaren finantza lege-proposamenak irrati libreak errezibitzen duten FSER laguntza %35 apalduko luke. Ipar Euskal Herriko elkarte irratiek erabakia salatu dute.

2024-10-25

"Zigorrak bateratuko dituen erreforma urrats handia da presoan egoeran"

MIKEL MUNDIÑANO

Sare elkarteko kidea. Europar Batasunaren aginduz datorren lege erreformak 52 presori eragingen die.

EUSKALERRIA IRRATIA (2024-10-21)



Kakofoniak



DIANA FRANCO EGUREN

Eremu ez profesionalari loturiko pertsona talde digitaletan, besteoi argudioak emateko adimen artifiziala baliatu duenik ikustea gertatu zait azken urte honetan. Partekaturikoa propioa bailitzan. Norberarena, baina ez jabetzaren zentzuari loturikoa, baizik eta norbere gorputzetik prozesaturikoa. Zerk eraman dezake pertsona bat, adimen artifizialak bere baitan duen kapital informatibo guztiarekin, pareko pertsonen gainean halakorik botatzera?

Pertsonon munduan trebetasun sozialak oso garrantzitsuak dira, horiek ulertzeko moduak oso anitzak. Baina orokorrean, pertsona guztiak ondo sentitzen gara taldean onartuak garenean, gure mundu ikuskera partekatua denean, ulertuak eta parte sentitzen garenean. Puntu horretara heltzeko gizakion estrategiak eta ahaleginak askotarikoak dira. Parekoen talde batean eragiteko adimen artifiziala aukera gisa ikustea, ordea, aztertzeko modukoa da.

Adimen artifiziala indarrez ari da sartzen enpresa munduan, danerako laguntza ematen baitu: dirulaguntza bat eskatzeko testua eta argudiaketa sortzea, programa informatiko bat sortzeko kodea garatzea, jaialdi bat planifikatzeko egitura ematea... Beharbada praktika horietara ohituta, pertsonak eremu pertsonalera eroaten ari dira hor ika-sitakoak. Zein mikrohigadura ekar dezake bizitzako eremu hurbilean dinamika hori zabaltzeak? Besteekin hitz egiteko laguntza adimen artifizial bati eskatzen badiogu, zergatik ez zuzenean adimen artifizialekin hitz egin? Medikua artifiziala, irakasle artifiziala, lagun artifizialak... moduko figuratan bilatuko ditugu erantzunak?

Gaur egun adimen artifizial baten emaitza hutsa (tratatu gabea) hautemateko gai garela uste dut, kakofonia baten gisan susmatuko duguna, belarrira ondo ematen ez duen nota bat bailitzan. Baina denborarekin beharbada zailagoa izango da. Ea horrelako praktikak ez diren zabaltzen, eta gure akats, espresio-oztopo eta ezjakintasunetik errespetuz adierazteko aukera ematen diogun geure buruari, gizarte honen parte izaten ikasten jarraitzeko bidean. ●



Biolentzia koloniala Portugalen

AXIER LOPEZ

Lisboan sumina piztu da, batez ere hiriaren kanpoaldean, migratzaile eta kolonia zaharretako -batez ere, Cabo Verde, Mozambique, Angola eta Brasil- herritar gehien biltzen duen langile-auzoetan. Arrazoia da Odair Moniz Cabo Verdeko gizon beltzaren heriotza. Urriaren 21eko gauean Poliziak tiroz hil zuen 43 urteko laguna. Portugalgo Poliziaren bertsioak zioenez, atxilotua izateari uko egin zion Monizek eta agenteei arma zuri batekin eraso egiten saiatu zen. Horren aurrean, polizia batek tiro egin zion. Halere, gutxi iraun du bertsio horrek, bideozaintzako irudiak zabaldu ondoren poliziek bertsioa aldatu baitute. Moniz tirokatu zuen 20 urteko agentea ikerketapean dago.

Hildakoaren familiak eta lagunak, Monizen jokabidea kriminalizatzen saiatzea leporatu diete agintariei. Auzokideen artean ez da zalantzarik: hilketa arrazista izan da. Pasa den astean 123 eraso eta istilu izan dira Lisboan, 22 pertsona atxilotu dituzte eta gutxienez zazpi zauritu izan dira.

Milaka lagunak Lisboako erdigunea hartu dute larunbatean Poliziaren arrazakeria eta indarkeria arbuizatzeko. "Justiziarik gabe ez dago bakerik" oihukatu dute Vida Justa erakundeak antolatutako manifestazioan. "Odair Moniz, tamalez, ez da kasu isolatua, Poliziaren basakeriaren eta auzoetako militarizazioaren

eta arrazakeria sistemikoaren biktimen zerranda luzearen parte da", azaldu du Jakilson Pereira gizarte-hezitzaile eta Vida Justa kolektiboko kideak. Salatu dutenez, 2008ko krisi ekonomikoaz geroztik, gutxiengoak "barne-etsaitzat jo dituzte, herritarren gaitz guztien erantzuletzat". Beste 80 bat erakundek, gehienak arrazakeriaren aurkakoak eta auzo elkarteak, babestu dute martxa.

FAXISMOA ERE MOBILIZATU DA

Chega eskuin muturreko alderdia ere kalera atera da larunbat arratsean, baina bestelako ibilbide bat eginda. Martxaren helburua Poliziari babesa adieraztea izan da. Milaka antiarrazisten aurrean, ez dute 300 lagun baino gehiago elkartzeko lortu.

Chegako bozeramale Andre Venturak adierazi du Monizen heriotzaz akusatutako poliziari "domina eman" beharko lioketela, baina "demokrazian dena dago gaizki". Fiskaltzak ikerketa abiatu du adierazpenen horiek direla eta, baita Chegak Parlamentuan duen bozeramaile Pedro Pintoren aurka ere. Pintok adierazi du segurtasun indarrek "hiltzera gehiagotan tiro egingo balute, herrialdea ordenatuago egongo litzatekeela".

Martxoan izan ziren Parlamenturako hauteskundeetan Chegak bozen %18 lortu zuen, 1.200.000 boto inguru. ●

Erdarazko hedabideek bizkarra ematen diote euskarazko kulturari

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Ukatu egiten zaio jende bati euskal kultura jasotzea. Nagusiki erdarazkoak diren arren, Euskal Herriko hainbat komunikabideren kontsumitzailer diren herritarren gehiengoak badaki euskaraz, ez da dudarik, eta Espainiako CIES inkesta-etxearen datuek horrela baieztatzen dute –*El Correo*-ren irakurleen %51ak euskaraz egiten du, *Diario Vasco*-ren %73ak, *Naiz*-en %90ak-. Baina kultur paisaia oso ezberdinak marrazten dituzte: erdarazko komunikabideen irakurleak euskal kulturarekiko kontakturik gabe bizi dira.


Euskara hutsezko hedabideetan, 2023an gehien agertu diren hamar kulturgileetatik zazpik euskara hutsean egiten dute lan; aldiz, gaztelaniakoetan, hamarretik hiruk egiten dute euskaraz, eta inork ez euskara hutsean. Elebidunetan, *top-10*-eko zortzigarren postuan Harkaitz Cano ageri da; euskarazkoetan, *top-10*-aren hurrenkera da Joseba Sarrionandia, Harkaitz Cano, Mikel La-boa eta Esti Urresola. Bi zerrendetan errepikatu diren izenen artean dago Urresola; ez da kasualitatea, *20.000 especies de abejas* pelikularen sona iaz izan baitzen oro har.

UEUren bueltan sortutako Kultur Sorkuntzaren Transmisio Taldeak antolatuta eta erakunde publikoek babestuta, *Sormenean hezi, kulturaren bizi* jardunaldian, Azpeitian, aurkeztu du EHUko NOR ikerketa taldeak txostena, *Euskarazko kulturgin-tzaren presentzia hedabideetan* deiturikoa.

Euskal Herriko 11 komunikabidek marraztutako 2023ko paisaiaren analisia egin dute. ARGIAren 2023ko *Kultura* atalaren espozizio digitaleko lana aztertu dute, eta ondorengo komunikabide hauena ere bai: *Berria*, *Arabako Alea*, *Goiena*, *Kazeta*, *Naiz*, *El Correo*, *Diario Vasco*, *Noticias de Navarra* eta *Eitb.eus*.

MUSIKA ETA LITERATURA, NAGUSI

11 hedabide horietan agertu ziren Euskal Herriko 5.637 kulturgileen artean, ia %92a diziplina bakarrean aritu zen, edo diziplina bakarrean izan zuen espozizioa. Batean baino gehiagotan dabiltzanak, oro har, bertsolariak dira.



2023an, Euskal Herriko 11 komunikabide esanguratsu hartuta, grafikoa: kulturgile kopuruaren agerpen maila ehunekotan, sorkuntza hizkuntzaren arabera, hedabidez hedabide.

Ildo orokorrean, azpimarratu beharreko hainbat gako eman ditu NOR-en txostenak. Alde handiz, euskaraz zein erdaraz, musikariak dute presentziarik handiena komunikabideetan, eta atzetik dituzte literatura arloko sortzaileak eta zinema eta ikus-entzunezkoetakoak.

Euskal Herriko 11 hedabide esanguratsu hartuta, 2023ko 'Kultura' ataleko artikulu guztien %40a kanpoko kulturari buruzkoa izan zen

Aintzat hartu behar da, kopuru absolututan, literatur sortzaile gehiago daudela musikariak baino –hedabideetan duten presentzian hori horrela dela baieztatzen dute datuek–, baina protagonismo handiagoa dute musikariak. Era berean, bertsolariak kopuruz gutxiago dira, baina agerpen-maila handia dute. Beste muturrean dira, aldiz, arte-plastikoak eta antzezpenaren alorrekoak.

LAU PUNTUKO ONDORIO SORTA

Lehena: Euskarazko hedabideek garrantzia handiagoa ematen diote euskarazko sorkuntzei, eta gaztelaniarazkoek gutxi. Paisaia ezberdinak marrazte dituzte. "Trakzioa vs galga (edo gutxienez neutralizazioa)", nabarmendu dute txostengileek.

Bigarrena: Bada publiko potentzial bat ez dena jasotzen ari euskal kultura, ez zaio bazka ematen, ez zaio erakusten. Horrek euskal kulturaren transmisioa eragozten edota galarazten du.

Hirugarrena: Hamaika hedabideko sorta horretan, *Kultura* arloko artikuluen %40 inguru, Euskal Herriko kanpoko kulturari buruzkoa izan zen. Beraz, hemengo komunikabideek kanpoko (ere) hauspotzen dute.

Laugarrena: NOR ikerketa-taldeen arabera, "[soziolinguistikaren] errealitatea aldatu da, baina badirudi kartografia zaharrekin ari garela". Hau da, txostengileen iritziz, komunikabideek ez dituzte haien gaur egungo audientziak ongi ezagutzen, eta duela 40 urte zegoen errealitatean ari dira oraindik. ●

ZUHAITZEN MIGRAZIOA DUGU OIHANEK KLIMA LARRIALDIARI AURRE EGITEKO SOLUZIOETARIKO BAT

Gero eta egoera larriagoan daude munduko oihanak, klima aldaketak ekarritako bero uhin eta lehortek bultzatzen dituzten suteengatik, bertzeak bertze. Latitude ertain eta borealetan klima jadanik aldatu arren, oihanak orain arte oso guti prestatu ditugu aldaketari, batez ere praktiken inertziarengatik. Zuhaitzak iparrera azkarrago migratzen laguntzea izan daiteke konponbideetari bat. Halere, ezin da erantzun globalizat hartu, tokian tokikoa izan behar da.

 NICOLAS GOÑI

Oihanek klima globalaren orekan duten garrantzia gero eta argiago dugun bitartean, basoei egindako kalteak maila arriskutsutara emendatzen dabiltza. Baso-soiltzeak darrai Hego Amerikan –Txilen eta Uruguain izan ezik–, Afrikan –Marokon, Aljerian eta Tunisian izan ezik– eta Asiako hego-ekialdean –Indonesian, Myanmarren eta Kanbodian bereziki–; zura baliatu ondoren behi haragia, palmondo olio edota soja ekoitzi eta esportatzeko. Horri gehitzen zaizkio, eremu tropikalaz gain latitude ertain eta borealetan ere, klima aldaketak bultzaturiko ezohiko bero uhin eta lehortek, suteak, eta zuhaitzen gaitzak.

Brasilgo presidente Lulak Amazoniako baso-soiltzea mantsoaraztea lortu badu ere, ezohikoak izan dira Hego Amerikako eremu tropikaletako aurtengo suteak, *El Niño* fenomenoak eragindako lehortea tarteko. 46 milioi hektarea baino gehiago erre dira –Euskal Herriaren azalera bider 23. Erraz idazten da–. Oso goiz hasi da, gainera, suteen sasoiak: ekainaren 10ean jadanik 1.315 sute zeuden, hau da, iazko data berean baino 1.188 gehiago, Brasilgo espazio ikerketa erakundearen arabera.

Oihan tropikalak ez dira suteak kalteeturiako bakarrak: Kanadan 5.3 milioi hektarea erre ziren irailean, eta Errusian –Siberian nagusiki– 8,8 milioi uztailen. Uztailetik aurrerako daturik ez dugu, baina abuztuan ere jarraitzen zuten Sibe-

riako suteek, Tuva errepublikan kasu. Suteek eragindako karbono isurketei dagokienez, Kanadan azken hogeitau urteetan izandako bigarren handienak izan dira aurtengoak, iazkoak zirelarik handienak.

Oihan borealetan suteak ez dira karbono zikloari –eta beraz klimari– loturiko arrisku bakarra: Finlandian neurtu duten bezala, oihan borealek uste zena baino karbono askoz gutiago harrapatu dute azken urteotan, eta han hemenka karbonoa isurtzen ere hasi dira. Finlandiako baliabide naturalen erakundeak dio 1990etik 2010eko hamarkada hasiera arte urtero bertako oihanek 30 milioi tona inguru CO2 harrapatzen zutela eta azken urteotan, 5 milioi tona CO2 baizik ez dituztela xurgatzen. Azkenaldian, oihanak ez dira laborantzaren eta hezeguneen isurketak konpentsatzeko gai izan –are gutiago industria eta garraioena– eta herrialdearen karbono neutraltasun xedea kolokan dago. Zergatia ez da oraindik guziz aztertua eta kuantifikatua, baina hipotesi nagusietako bat da uda lehor eta beroagoetan zuhaitzen hilkortasuna emendatzen dela, batez ere ur asko behar duten urkia eta izei gorriarena.

TOKIKOAK, BERTAKOAK ETA ETORKINAK

Monolandaketak egon diren tokietan –Euskal Herrian gehiegi landatu den Pinus radiata eta hori ordezkatzen ari den eukalipto, kasu–, askotan entzun dugu tokiko

espezieei lehenetsia eman behar zaiela. Argudio sendoak daude horretarako: jatorrizko oihana anitzagoa zen eta anitzasunak erresilientzia bermatzen du, ARGIAren 2867. aleko *Oihanen kolapsoa saihestu dezakeen bioaniztasun globala nola zaindu?* artikuluan azaldu bezala.

Gainera, tokiko baldintzei kanpoko espezieak baino askoz hobe moldatzen dira jatorrizkoak, mendez mende baldintza horiek eragindako selekzioetik igaro direlako. Bada, azken hori da orain desagertzen hasi zaigun ezaugarri potoloa, batez ere latitude ertain eta borealetan: tokikoak diren espezie horien bizi-zikloaren baldintzak zalu aldatzen ari dira, eta betiko oihanaren espezieak izanik ere, ez dira lehen bezain egokiak.

Gure mendietan, adibidez, pagoaren presentzia baldintzatu ohi duten uda epel eta euritsuak datozen hamarkadetan ez ditugu orain arte bezain maiz ikusiko. Berdin gertatzen da hainbat eskualdetan, eta honi aurre egiteko ekimen ezberdinak daude. *Grist* hedabideak kontatzen digunez, horietako bat AEBetako ipar-mendebaldean abiatu dute, eta "migrazio lagundua" deitu dute, hau da, zuhaitz batzuen banaketa eremua berariaz zabaltea. Konkrétuki, hegoalderago bizi den espezie bat bertaratzea, edota bertako espezie bat hautatzekotan, tokikoa beharrezko, hegoalderago hazitakoak ekartzea. Ideia da datozen hamarkadetan baldintza



ERRONKA POTOLOA Garesen 2022ko udan erre ziren arteak, ezohiko lehorte eta beroak indarturiko suteen ondorioz. Baldintza horiei hobe aurre egiteko nola sendotu gure oihanak? Erronka potoloetariko bat dugu hori.

lehor eta beroagoak egon badira, baldintza horiek jadanik pairatzen dituen hegoalderagoko eskualde batean hazitako aleak hobe biziraunen dutela. Eskualde zehatz batean landatu beharreko zuhaitz gazteak zein eskualdetatik hartu behar diren aholkatzen duen tresna berezi bat garatu dute horretarako.

Hori horrela, Washington Estatuan, bertan hazitako izeiek baino askoz hobe biziraun dute Kalifornian hazi eta bertara ekarritakoek, uda lehorrei hobe aurre egiten dietelako.

ARAZO GLOBALARI TOKIKO ERANTZUNAK

Halere, migrazio lagundu honen abiadura ongi zaindu behar da, klima aldaketak dakarren tenperaturen aldakortasuna-

rengatik: batez bertzean tenperatura beroagoak ditugu, baina noizbehinka eta han hemenka *jet-stream* haizearen bihur-gune batek aire polarra ekarri diezaguke. Beraz, etorkizuneko beroaz gain, ezohiko izozteei ere aurre egiteko gai izan behar dira zuhaitz gazteak.

Migrazio lagundu hori ez da masiboki edonon egitekoa, tokiko baldintzen arabera izan behar du: bertako espeziez osaturiko eta integritate maila ona duen oihan osasuntsu batean ez da premiazkoa, aldiz, oso lagungarria izan daiteke gaitzak edo hilkortasuna pairatzen dituen oihan hauskorrako batean. Eraitza baikorrak lorturik ere, nekez lortzen du onarpena migrazio lagunduen egokitzapenak. Alde batetik, monolandaketak egin ohi dituztenak ekosistemaz guti arduratzen

dira, eta zuhaitzak landatu eta moztu birtarteko epe laburrak dituzte –klimaren aldaketa kontuan hartzeko laburregiak, alegia-. Bertzaldetik, oihan kontserbazioan adituek tokian hazitako bertako espezieen landareak erabiltzea lehenetsi dute markada luzeetan, hain justu, ekosistema ez aldatzeko asmoz. Honek bioaniztasuna babesten laguntzen du, baina epe luzean klima aldaketarik gabeko mundu batean baizik ezinen luke funtzionatu.

Badaude moduak bioaniztasuna eta erresilientzia emendatzeko, egokia denean tokiko zuhaitzen artean eskualde lehorrago eta beroagoetan hazitakoak landatuta, Europan zehar aspaldidanik gaztainarekin egin den bezala adibidez. Zaluegi mugitzearen ala ezer ez ukitzearen artean dugu erantzuna, beti ere, tokian toki eraginda. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegioptika.com

AHLEM

Jon Las Heras

ZIENTZIA POLITIKOETAN DOKTOREA



EGUNGO AISIALDI EREDUAK LANTOKIETAKO PRAKTIKA BIRPRODUZITZEN DU



Atenasera joan zen master tesia egitera. Ezin izan zuen doktoretza bertan egin: haren espezialitatea desagertu egin zen gobernuaren mozketekin. 2010eko krisiak Grezian harrapatu zuen, ordea, eta ikasi zuen kapitalismo globalak ongizate estatua erraz suntsi dezakeela.

 ONINTZA ENBEITA  HODEI TORRES / ARGIA CC BY-SA

EHUko zure orrialdean sartu naiz. Zure buruaren aurkezpenean diozu, lanaren ikerketa gizakiaren potentziala harrapatzean datzala.

Bai, hala da. Zer egiten zaizu deigarri?

Zer da lanak harrapatu behar duena? Edo zertaz ari gara gizakiaren potentzialaz ari garenean?

Lana da gizakiok gure inguruarekin modu kontzientean harremanak izateko egiten duguna. Azken batean, gure ingurua antolatzen dugu gure beharrak asetzeko, eta horren poderioz eraldatzen gara. Ez gara berdinak lana egin baino lehen edo egin eta gero: gai izan gara zerbait egiteko, eta hor transformazio bat dago. Lana da guk egiten dugun edozein ahalegin gure ingurua eraldatzeko eta gure metabolismoa aurrera

eramateko. Zure buruari uzten badiozu horren inguruan galderak egiten, harritu egingo zara.

Hor gizartearen potentziala non sartzen da?

Gauza da galdera modu indibidualean egin diezaiokegula gure buruari, baina erantzuna kolektiboa dela. Hemen gaude norbanako batek edo askok lagundu digutelako hemen egoten edo ez egoten.

Kapitalismoak kontrako ideia saltzen digu: bakarrik egin dezakezu.

Norbanakoa ez da subjektu libre abstraktua: giza espeziearen une bateko espresioa da. Galdera da ea nola jartzen zaren harremanetan beste gizakiekin, zure eta haien potentziala garatzeko, edo gauzak

zalantzan jartzeko, edo helburu berriak asmatzeko. Egungo gizartearen marko ideologikoa indibidualtasuna da. Ekonomia fakultateetan irakasten den ekonomia eredu bat da Robinson Crussoerena. Izan ere, gizon zuri bat dago irla batean eta bere lana eta aisia kudeatzera iristen da. Hori ez da errealia. Norbanako bat irla batean, baldintza horietan, hil egingo litzateke. Esate baterako, zu joan zaitetzke mendi punta batera edo txoko galdu batera bakarrik bizitzera, baina gero, medikua behar baduzu Osakidetzara joango zara. Hor beste norbanako batzuk daude zuretzat ona den lan hori egiten. Beraz, ez da egia erabat bakarrik biziraun dezakezula. Ondorioz, gizakien arteko harremanek hartzen dituzten formak ikerketa proiektu irekiak izan daitezke.



Jon Las Heras

GASTEIZ, 1987



Ekonomian lizentziatu zen Madrileko Carlos III.a unibertsitatean, baina Zientzia Ekonomikoen eta Auto-gestioaren Institutuak ireki zizkion ideiak. Greziako unibertsitateak dirua zor dio ez zizkiolako ordaindutako ikasketak bermatu. Manchesterran egin zen doktore, eta EHUn dihardu irakasle. Fakultateek ekonomia ulertzeko duten modua mugatua dela dio. Agian horregatik esaten du bera ez dela ekonomialaria.

Ekonomia politikoa da zure arloa. Badago politikoa ez den ekonomiarik?

Zientziatzat hartzen den diziplina ekonomikoa, modelo unibertsala... irakasten duten fakultate askotan politika hitza ez dago ondo ikusita. Merkatua efizientea da ustez, eta politika sartzen baduzu, efizientea izateari utziko dio. Hemengo irakasle talde batek (Jonber Zubiri, Miguel Virizuela, Juan Barredo, Xabi Gainza, David Hoyos...) antolatatu ditugu iaz eta aurtuen udako ikastaro zein seminario batzuk eta saiatzeko gara ekonomia-aren disziplina hori zalantzan jartzen, ikuspegi irekiago bat ematen ikasleek haien ikerketa prozesu indibiduala garatu dezaten.

Duela hiru urte inguru, euskal sindikalgintzak azken hamarkadetan izandako bilakaera ikertu zenuten. Atera zenuten ondorioetako bat da mugimendua indartsuagoa dela Euskal Herrian beste leku batzuetan baino.

Indartsuagoa dela baino gehiago, esango nuke, beste modu batera antolatzen dela. Gero, helburuak lortzen dituzten edo ez, beste ikerketa batean aztertu beharko genuke. Ezberdintasunak daude, hala ere, negoziazio prozesuetan. Hemen eta hemendik kanpo marra gorriak ez daude leku berean. Ikerketa egin genuenetik hona, gainera, dinamika batzuk areagotu egin dira. Azken urteetan sindikatu batzuk greban espezializatzen ari dira, eta hor badago banaketa.

Duela urte pare bat argitaratutako datuen arabera, Espainiako Estatuan egiten diren greban erdiak Euskal Herrian egiten dira. Orain, hemendik kanpo ere erresistentzia kutzak garatzen ari dira –Katalunian eta Aragoian, batez ere–, eta orain arte grebarako kultura gutxiago izan dutenek gehiago jo dute borroka bide horretara. Gu erakusten saiatu ginen nola antolatzen diren sindikatuak eta horren arabera zeintzuk diren joerak. Potentziala badago kontraboterea antolatzeko edo konfliktibitate gehiago nahi duten sindikatuak errekurtsio berriak lantzeko.

Ikerketaren emaitzak harritu egin zintuzten ala hasierako hipotesiarekin bat dator?

Aurreko ikerketa batetik atera nituen galderak, eta datu batzuk banituen. Beraz, ez ginen harritu. Gero egia da, fabriketan galdetzen baduzu, harritu egiten zarela. Aurreko ikerketa batean, esate baterako, Gasteiz eta Bartzelonako autogintza lantegi bi alderatu nituen, eta desberdintasuna izugarria zen. Hemen antolatuta zeuden eta Bartzelonan bakoitzak ahal zuena egiten zuten. Literatura ekonomikoak esaten du autogintzan %30eko arrakala dagoela lanpostuaren araberrako soldata desberdintasunean. Kontua da, hemen, orokorrean, Katalunian baino askoz gehiago kobratzen zutela langileek. Eta enpresa, hemen ere errentagarria zen. Eta hala ere, soldata altuagoa zuten langileek enpresa behartu egiten zuten berrikuntzak txertatzera, zeren soldatak baxuak direnean berrikuntzak ezarri ordez, enpresa lekuz aldatzen da, adibidez. Hain sinplea bada lana, berdin egingo da Bartzelonan edo Mexikon, ez?

1980ko hamarkada asko mitifikatu izan da: desindustrializazioa, grebak, langile mugimendua...

Zuk zer uste duzu?



Dinamika batzuk areagotu dira eta azken urteetan sindikatu batzuk greban espezializatzen ari dira”

Ez dakit, bada. Batzuetan inpresioa daukat orain

langile askok ez daukara langile kontzientziarik.

1980ko hamarkadara joanda, bistakoa da, egoera ekonomikoa ez dela berdina. Fordismoaren bukaerak testuinguru historiko oso zehatz bat marraztu zuen: ordura arteko lantegiak oso handiak ziren. Zuk 5.000 langile jartzen badituzu mehatxu berdinarean azpian, erantzuna bateratua izango da. Gainera, orduko genero eta familia estruktura aztertu egin behar dira. Nahiz eta emakumeek bi edo hiru lan egin etxekoarekin batera, gizon industrialek diru gehiago sartzen zuten familiara. Orduan, estruktura sozial oso bat jarri zuten mehatxu berberaren azpian.

Mobilizazioak egiteko gaitasuna handiago izango zen, baina galtzeko zeukaten ere gehiago zen. Orain lan merkatua konplexuagoa da, globalizazioak gauza asko apurtu ditu, migrazioak handitu dira, emakumeak protagonismo handiagoa dauka... langileen arteko



lehia handitu egin da. Lehen langileak ez ziren lehiatzen Frantzia edo Alemaniako langileekin. Azken urteetako mobilizazio handienak zerbitzu publikoetan izan dira, adibidez. Feminizatutako sektore batzuek ere borroka handiak egin dituzte, baina sektorekako indarra izan da. Bide batez, arazoa globala da, baina erantzuna ez. Zaila da mobilizazio internazionalak lotzea, baina arazo internazionalak konpontzeko beharrezkoak dira.

Beraz, langileek badaukate langile kontzientziarik? Sentitzen dira langile?

Zuk auresuposatzen duzu badagoela langile kontzientzia bat, baina zer da langile sentitzea? Jendeak bere gorputzean sufritzen du, materialki, sistemaren bio-lentzia: estresa, antsietatea... Indarkeria handia jasaten dugu. Agian, langilearen ideia klasiko hori ez daukagu, edo ez dakigu interesak koordinatzen, baina gauzez ohera bizkarreko minez goazenean, denok dakigu langileak gara.

Neoliberalismoak nartzisismoa eta indibidualtasuna sustatu ditu: ez dugu ha-

rreman solidarioak eraikitzeko interesik, ez garelako besteez fidatzen, ezta besteekin harreman estuagoak eraikitzeko ditugun antolakundeez ere. Eta fragmentazio horretan jabego pribatua kudeatzen dutenek edo merkatuan pribilegiozko lekua dutenek irabazten dute. Duela gutxi etxez aldatzen ari zen lagun bati galdetu nion ea laguntzarik eskatu zuen, eta esan zidan jendeak ez daukala horretarako denborarik. Esan zidan ea nola eskatuko zion norbaiti altzariak aukeratzen laguntzeko, eta nik diot: zergatik ez? Ondo dago zuzerzat garrantzitsuak diren gauzak besteekin konpartitzea. Lagun horiek gero parrandan hor egongo dira, eta laguntzen zergatik ez?

Dena den, langilea izatea deskubrimentu prozesu bat da. Garai bateko langile kontzientzia edo sentimendu hori patriarkala zen, ez zen ekologista, langileen intelgentzia emozionalaren kontra zihoan... Langilea gai zen bere lan-baldintzak borrokatzeko eta soldata irabazteko, baina ez beste lan asko modu duinean egiteko. Orain, adibidez, zaintza lanak mahai gainean daude,

eta orduan aitatasun baja hartu zitekeenik pentsatu ere ez zuten egingo. Eta zurea ere baden pertsona horrek zaintza behar du, eta lan hori ere garrantzitsua da.

Sistema kapitalistan inork ez du langile soila izan nahi. Bidaltzen dizkiguten mezu guztiak dira “egin beste zerbaitez: inbertitu bitcoinetan, lortu etxetik bigarren soldata bat ...”.

Jarri dituzun adibide biak monetarioak dira, baina orokorragoa da. Garai batean bertutea deitzen ziztaion horretan ere, interes instrumentalaren bat egon behar da. Lana egiten dugu, eta lanetik kanpo oso eraginkorrak izan behar dugu lanak eman digun horrekin aisialdia betetzerakoan. Laneko lehiakortasuna modu bortitzean hedatu da aisialdira. Jendeak egiten ditu triatloiak, mendi irteerak... dena erlojuarekin neurtuta, eta gero, makinara goazenean ere, logika horri eusten diogu.

Aisialdi horrek lantokiaren logika birproduzitzen du, eta ez diogu jolasari edo zaintzari denborarik uzten: alegia, ez gara fabrikatik inoiz ateratzen. Gure lehiakortasuna handitzen ez duten lanak eta esperientziak baztertu egiten dira, eta arazoak badituzu psikologoarengana joango zara arazoa zurea delako. Ez duzu arazoa kolektibizatuko: zurea da. Baina arazo guztien konponbidea ez dago norbere esku. Ezin baduzu jolastu edo beldurrik gabe besteekin harremanik izan, zer izan behar dugu, psikopatak?

Beno, sistemak saritu egiten du psikopata izatea.

Bai. Negar egitea, ahula izatea... ez dago ondo ikusita. Ongizate estatua kritikatu egiten da. Prestatu egin behar da norbanakoa berak bakarrik gauzak lor ditzan. Ez harritu autolaguntzarako liburuak enpresen kudeaketarako liburuen ondoan ikusten badituzu liburu-dendetan.



AEBetan kalean bizi den jende asko langilea da, eta hemen ere gero eta gehiago omen dira lana izan arren, ezin diotenak bizimoduari eutsi.

Langile pobreak. XIX. mendera itzuli gara. Badaude, hala ere, langileak elkarrekin egoteko moduak. Jendeak behar du batasuna, eta hor dago futbola, adibidez. Nik Bilbon ikusi nuenean hainbeste jende, garra batean zetozen gizon batzuei begira, pentsatu nuen hor badaudela lana eta antolaketa. Aisialdi eredu hori klasista da, patriarkala... baina jendea badao. Ez daukagu denborarik ondokoari laguntzeko, baina badaukagu denbora artaldearekin elkartzeko. Momentu horretan jendea pozik dago, ondo; baina, ez dago poza sortzeko beste modurik?

Bizkaian haien burua eskuinekotzat zein ezkerrekotzat dutenek defendatuko dizute Athleticen inguruan gertatzen den guztia.

Bilbon dauden kontraesan handiak Athleticen bidez justifikatzen dira. Nahiz eta bizitza oso desberdinak izan, guztiok Athleticicekoak garenez, beste guztia ez dugu zalantzan jarriko. Hori ideologia da: arazoei bizkarra emateko modua da, existitzen diren arazoak zalantzan jarri gabe.

Beste hiri batzuetan ez da hainbesterako.

Hemen kontraesanak beste hiri batzuetan baino handiagoak dira. Ni joan izan naiz San Mamesera eta gauza asko egin daitezke han. Adibidez, partidaren deskantsuan enpresei buruzko informazioa eman beharrean, esango balute mikrotik aste bi barru hondartzak garbitzera joango garela? Edo dependentsia egoeran bizi diren pertsonak zaintzera? Zergatik ez dugu han dagoen energia beste nonbaitera eramaten? Hori ere lana da, eta lan egin dezakegu denontzat onak diren gauzak egiten.



Gaira itzuliko naiz. Euskal Herriko sindikatu nagusien eta beste toki batzuetakoen artean, desberdintasun handiak ikusten dituzu?

Sindikatu mota asko egon dira beti, eta orain berriak sortu dira: Kellyak, Glovoko langileak... orain arte sindikatuek ez dute jakin lan mota horiek nola hartu, eta haien kabuz antolatu dira. Oinarrizko eskaerak dituzte: "Legea bete ezazue gurekin". Beraz, jende berria politizatu da nahiz eta oso gauza sektoriala izan. Ondo egitura-tutako sindikatuek elkarlan gehiago egin behar lukete hauekin, baina ez da berdina sindikatuen tamaina bera ere. Badira sindikatu txiki batzuk espiritu oso kritikoa-rekin asanblearismoari eusten diotenak, baina hori handietan gaitza izan daiteke kohesioa mantentzerako orduan.

Europara begira ez dakit, baina argi dago Espainiako Estatuarekin desberdintasunak daudela hemen. Espainiako sindikatu nagusiek zilegiztatu egin zuten soldaten jaitsiera, adibidez; eta hemen sei greba orokor egon ziren [2008ko krisialdian]. 2020an giza eskubideen gutunaren

aldeko greba orokorra egin zen Euskal Herrian. Hori oso garrantzitsua da: ez da kendutakoa defendatzeko ekimena, eskubide gehiago borrokatzeko da. Ez dakit European halakorik izan den azken hamarkadetan.

Zeintzuk dira azken urteetan langile mugimenduak galdu dituen eskubiderik handienak?

Euskal Herrian, modu zuzenean, grebarako eskubidea murrizten ari zaizkigu. Kaleratzea asko erraztu da. Baina, oro har, ondorio gisa, esango nuke ez garela kontziente zein mehea den gure eskubideekiko dugun babes sistema. Ez dakigu erantzun ausartak eta konstruktiboak ematen kolektiboki.

Eta irabazi?

Urte askotako borroka eredu garri askori esker, emakumeek lan munduan beste estatus bat lortu dute. Hori garaipen politikoa da. Gero, sindikalismoan sartzen bazara modu konkretuan eta sektoreka, badaude garaipenak. ●

Audio eta bideoen transkripzio eta azpigituluak

6 hizkuntza: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, katalana eta galegoa


aditu.eus

Automatikoki eta minutu gutxian Editatzeko eta itzultzeko aukera



aditu
elhuyar





Ez goaz lanera

Urriaren 15ean, lan arloko ekonomialarien topaketetan, mahai inguru interesgarri bat egin zen. Patronalak, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak eta sindikatu batek parte hartu zuten. Eztabaidagaia lan munduan gero eta oihartzun handiagoa duen absentismoa izan zen.

Erakunde bakoitzak interesatzen zaion definizioa edo ikuspuntua aukeratu zuen. Arazoa zen enpresarien interesak defendatzen dituztenen ikuspuntua ez zutela agerikoa egiten, eta eztabaida gaiztotu zutela. Gainera, “zentzu komun” zehatz bat ezartzeko, mahai inguruan hainbat falazia erabili ziren. Adibidez, Espainiako erresumako beste lurraldeen aldean, EAEn lan baja gehiago hartzen direla. Ez da zuzena datu horretatik ondorioztatzea lanarekiko arduragabekeria handiagoa dela, baina zeharka “zentzu komun” horretan eragin nahi zen. Beste amarrua zen anekdota bat hartzea eta korridoreko elkarrizketa bat kontatzea: langile batek beren baja luzatzeagatik poztasuna adierazi zuen eta, zeharka ondorioztatu nahi zena, langileek oro har euren lan baja epea luzatzea nahi dutela. Erabilitako falazia zerrenda zabala izan zen, beti langileak kriminalizatzeke, noski.

Patronalak ez zuen definizioaren inguruan eztabaidatu nahi, baina lan absentismoa definitu gabe utzita, euren ikuspegia ezarri nahi zuten. Kontzeptuaren inguruan hitz egitea funtsezkoa

Gako nagusiena lan arriskuen prebentzioan dago. Absentismoa, gaixotasun egoerarekin lotzen badugu, ez da arazoaren jatorria, ondorioa baizik

da, horrek zehaztuko baititu aplikatuko diren neurriak. Lan zuzenbidean, justifikaziorik gabeko lanera ez agertze moduan definitzen da, dakarren zigorrekin. Baina patronalak erabiltzen duena, Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa ikasgaiko irakasle batek esan bezala, erabat ekonomizista da, giza-baliabide departamentuena: nahiz eta justifikaturik egon, absentismoa da ez egotea. Berdin du gaixorik egoteagatik edota jaiotze osteko baimen bat dela-eta lana eta familia bateragarri egiteko eskubiak erabiltzeagatik izatea. Horrela, komunikabide nagusienetan eta hainbat lan arloko foroetan definizio ekonomizistan erortzen dira, eta gaiari heltzeko modua korapilatzen dute. Hala bada, langileen eskubideak murriztea absentismoari aurre egiteko neurria izan daiteke. Gainera, eztabaida publikoan



**ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN**
EKONOMIALARIA

beste elementuak sartzen dituzte, hala nola aurrez aurreko lan absentismoa, lanean atsedenaldira hartzea edo mentalki deskonektatuta egotea.

Nondik hartu aurre absentismoari, definizioan holako trikimailuak erabiltzen badira? Eskubideak ezin dira ukitu, edozein kasutan, handitu baizik. Arrazoi gabeko absentismoa ekiditeko lan legedia dago (zigorrak eta kaleratzeak). Geratzen zaigun tartea lan osasunari lotuta dago. Gako nagusiena lan arriskuen prebentzioan dago. Absentismoa, gaixotasun egoerarekin lotzen badugu, ez da arazoaren jatorria, ondorioa baizik. Lan gainkargak, lan erritmo sutsuagoak, langileen alienazioa sustatzen duten egiturak, laneko jazarpena naturalizat hartzen duten enpresak, estres egoeran lan egitea normalizat zuten lanpostuak existitzea... Horretarako lan arriskuen prebentzioa funtsezkoa da; arrisku psikosozialetan, are gehiago. Ezinbestekoa da prebentzioan langileen eta euren erakundeen parte-hartze erreal bat izatea, eta ez gaur egungo pantomima, helburua enpresek euren erantzukizuna ekiditea dena.

Parte-hartze erreal eta efektibo horren beharra mahai gainean jarri zen, absentismoari aurre egiteko tresna bezala. Agerian geratu zen enpresa munduaren jarrera: inondik ere ez. Horrela izanda, arazoa ez da absentismoa, lan eta kapitalaren arteko gatazka baizik. ●

Hauspoa



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



PAULA ESTÉVEZ

Duela zombait egun, Bruno Retailleau Frantziako Barne ministro berria lotu da “migrazio nahasmendu” deitu duen arazo premiatsuari. Estatu-ko prefetei manu argiak helarazi dizkie: tolerantziarik ez etorkinekin eta haiei begira lazo edo konplize agertzen diren egitura eta presunekin. Ordrea atxiki dezatela Frantzian, diziplina larderiatsua, “barne seguritate indarren” laguntzarekin –hau da, Polizia-instituzioa–. Garaia da agintariak beren gain har dezaten migranteen bereizketa, Xalbadorrek, duela 50 urte, oroitarazi zigun arren “*gizona bada erreprotxurik gabeko,/ bidea libro behar lukela nahi lekurat joaiteko*” (*Mendian galdu direneri*). Politikari handien diskurtso bortitz eta jendetasun gabe-koak bat doaz eskuin-muturretik ufatzen duen haizearekin, eta mehatxu eta beldur giro orokorra areagotzen dute.

Beharrik familiaren babesa hor daukagula, pribilegiatuok, gerizatzeko, nahiz eta gure arteko intimitatearen goxotasuna ere noiznahi hauts lezakeen hitz laidogarriren batek. Gogoan dut, bereziki, duela bi aste, 100 urtera heldua zen amatxiren ehorzketan, ahaideak kontsolamendu beharretan ginela eta, apezak erran digula guretzat “eta askorentzat” izanen dela salbamena, eta ez,

haurrean entzuten nuen bezala, guretzat “eta guzientzat”. Aldaketa liturgiko hori justifikatzen omen dute Bibliaren itzultzaile zorrotzek, eta ulertu behar omen da “asko” eta “guziak” ez dela hain ezberdin, baina halere, nola ez lotu kanbiamen hori inguruan nagusi den solas garbitzailearekin? Xalbadorrek, berriz, idatzi zuen “*gu guzientzat hil izan zela Jesus kurutze batean*”.

Beharrik hor dugula, gurean, kultura herrikoia, kolektiboki gogoetatzeko gaintitzen gaituenaz. Nahiz eta gure ohiko plaza ikusgarrietan ere nagusitzen ari den funts handirik gabeko leuntasun orokor bat, Peio Berterretzek bere Master lanean berriki azaldu duenez.

Beharrik hor dugula, bestalde eta oroz gaisetik, artea, erlijio baten antzera iluntasun orokorraren bidea argitzeko gai dena: urriaren 18an Artedramak emandako *Miñan* antzerkia ez ote da izan otoitz eragile bezain ekintzailearen irudikoa? Badira arte-obrari neurri transzendentetik eman behar ez zaiola erraten dutenak. Pierre Bourdieu-k idatzi du ez dela gehiago “irakurketa liturgikorik” egin behar, eta Roland Barthes-ek zioen literatura dela “irakasten dena, eta kitto”. Haien ildotik, anitzek esplikatu dute literaturaren didaktikari utzi behar zaiola

literatura zer den azaltzeko ardura, literatura ez duelako deus sakraturekin ikustekorik: objektu bat baizik ez liteke, zientifikoki diseagarria. Egia erran, ez nuke nahi nik modu profanoan irakasten dudana, hainbat teoria serio eta konplexutan oinarritua, izan dadin literaturaren buru-buztana. Hain zuzen ere, kurtsoak hasi eta bukatu ohi ditut ikasleei erranez kontatuko dudana eta kontatu dudana bigarren planoan ezarri behar dutela, beren buru-muinaren antolaketan, eta lehenetsuna eskaini behar dietela, baitetzpada, literatura onak beren barne sakonenean eraginen dien inarrosaldiei, karkaila askatzaileei edo korapiloiei.

23 urterekin Parisko bazterretan nintzelarik irakasle, XIX. mendeko erromantizismo frantsesaren ezaugarriak zoin ziren erakusten, nerabe batek bota zidan: “Badakizu, anderea, Victor Hugo eta erromantizismoa zure garaikoak dira. Gu ez gara gehiago holakoak”.

Menturaz XIX. mendeko ikuspegia daukat, literatura eta, oro har, artearen baitan ikusten dudalako gure salbamen bidea. Moderno izatekotan eta literatura objektutzat hartzekotan, hauspo gisakotzat har nezake, ez askoren baina ororen baitako pindarrak gar bihur litzakeenak. ●



SUKAR HORIA

Zaintzaren herrian bizitza posibleagoa da

Gure herri eta hiriek ez gaituzte zaintzen. Lurra falta zaigu, berdeguneak, espazio komunitarioak. Gure herria kapitalaren zerbitzura dago diseinatuta. Zaintzaren herrian, ordea, bizitza da erdigunea.

Lehen Kale Nagusia zegoen, hiria zeharkatzen zuen kale erraldoi bat. Kontsumitzea eta produzitzea zentroan zuden, erritmo frenetikoa, eta bizia zirrikietan, bazterretan. Bizia kolonizatuta, kanporatuta, lehortzeraino xurgatuta. Turistentzako erakusleho bihurtuta.

Baina porlanaren azpian lurra topatu genuen. Leku batzuetan padurak berreskuratu ziren, beste batzuetan baso biziak, baita zelaiak ere. Hegazti ugari hurbiltzen da hezeguneetara, intsektuak daude nonahi, pagoak, haritzak, lizarrak. Haien bidea egiten dute.

Hiriaren tamaina txikitzeaz batera gertatu zen hori, biodibertsitatearen leheneratzea lehentasun bihurtu zenean. Zaintzaren herrian, dagoen lekua izaki bizidunon artean banatzen da. Babesleku klimatikoa da. Egia esateko, ez dugu besterik behar. Ulertu dugu ez gara tokien jabe, aterpea eta munduari begiratzeko txoko goxo eta seguru bat baino ez ditugula behar.

Hiri-ortu andana dago etxeen alboetan, eskaileretan, teilatuetan: elikadura burujabetza lehentasun bihurtu zenean gertatu zen hori. Hormetan ere landa-

reak eta belarra daude. Arnasa har deza-kegu sakon, ekoizpen-moduetatik kutsatzeak aukera izateari utzi ziolako.

Orain, zaintzaren herrian, bizitza posibleagoa da. Oinezkoen neurrira egin da dago. Gehienok bizikleta bat dugu, eta badira oinez edo gurpildun aulkiz edonora mugitzeko bideak. Hamabost minutura dauzkagun merkatuak. Ni egunero joaten naiz hara. Trukeen ostean, gehienok bertan bazkaltzen dugu. Laster batzar orokorrera noa, merkatuko postuetako egurra hondatzen ari da, eta konpontzea proposatuko dut.

Gero, blokeko labadora erabiliko dut, Garazi eta biok geratu ginen bere alabaren arropak jarriko nituela nire asteroko koladan. Beste hiru lagunekin bizi naiz eta Garaziren alabarekin. Gogorra da batzuetan hazkuntzarekin asmatzea, baina moldatzen gara. Orain gogoratu dut, azkenean auzokoari tokatu zitzaion espazio komunak garbitzea, horrek esan nahi du aste honetan niri tokatzen zaidala! Antolatatu beharko dut neure burua. Eskerrak etxetik kanpoko lana mugatuta dagoela.

Gainera, laster urtebeteko atsedena tokatuko zait, eta denbora izango dut leku berriak esploratzeko, gero Garaziren alabari istorioak kontatzeko.

Azaroaren 30erako Bilbon Zaintzaren Herria antolatu du mugimendu feminista. Gure herriak nolakoak izango diren eraikitzen hasiko zara? ●

Arrosa gorria



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Lagun baten aitaren hiletan egon nintzen aurrekoan. Lagunak lore-sortetatik lore bana hartzeko esan zigun bertaratutakoei, nahi izanez gero. Loreei ezin diet ezetzik esan, askoz gutxiago arrosei, batez ere gorriei. Hala, arrosa gorri eder bat hartu nuen.

Arrosa eskuan, agurtzen ibili nintzen aspaldiko ezagunak, horrelakoetan gertatzen den moduan. Lauk-edo, txantxetan, esan zidaten lorea ikustean: ze, PSOEkoa egin zara?

Pertsona bakarrak esan zidan lore ederra nuela, Espainiako alderdiari erreferentzia egin barik, eta besteek esanda-

koa kontatu nion. Berak erantzun zidan loreen sinbolismoa ere ostu digutela, eta ez diegula laga behar.

Zer pentsatua eman zidan lagunaren esaldiak. Loreen erregina, pasioaren ikurra, partidu politiko bati lotuta betiko. Eta berdin zait alderdi horren ideologia, gure burmuinak beti lotuko ditu-eta.

Eta zenbat halako ote dagoen historian! Svastikarena ere hala, herri askotan eguzki-ikur zena ideologia batek lapurtu, eta betiko kriminalizatu.

Arrosa gorria ostu digute. Beraz, estima ditzagun arrosok direnagatik, edertasun hutsa disfrutatzearen, huts-hutsean. ●

Balorazio positiboa



BEÑAT MUGURUZA
ASEGINOLAZA
 IRAKASLEA ETA
 IKERTZAILEA

Wallapop aplikazioaren bidez bozgorailu kaxkar batzuk saldu nituen uda aurretik. Agian produktuaren deskribapena pixka bat puztuta zegoen, egia da. Erosleak hiru izar jarri zizkidan bostetik. Argi dago, ez nuen gehiagorik merezi.

Hurrengo astean, Irundik Bilbora eramane nuen autoan nire adin bueltako gizon bat, Blablacar webgunea erabilita. Bidaideak ez zuen zeken jokatu niri nota jartzeko orduan, eta bost puntu eman zizkidan, nota gorena. Iruzkina adeitsu bat idatzi ere egin zuen. Ez nuen gutxiagorik espero; bidaia bikain joan zen, hitz eta pitz, garaiz iritsi ginen adostutako lekura, ez zuen kezarik adierazi hankentzako espazio-muga bistakoengatik, eta nik ere malgu jokatu nuen helmugako puntuarekin.

Iazko irakasgai bateko ikasleen balorazio-inkesta iritsi zitzaidan ikasturtea hastearekin batera: 3,6/5. Ondo dago, edo ez dago gaizki, baina kopeta zimurtu egin zait nahi gabe. Iruditu zitzaidan ondo konektatu genuela, oso

Poz txiki bat ere eman ohi didate balorazio positiboek, eta pittin bat goibeldu edo apaldu, aldaratearen arabera, negatiboek. Baina zer balio dute benetan?

gustura egon zirela nirekin, eta inkestetan ez da hori nik espero bezala islatu. Zer egingo zaio...

Ez dut horretarako ohitura handirik, baina pasa den astean argazki bat jarri nuen seme-alabekin *zaharrunoon* sare sozialean, eta 38 "datsegit" lortu nituen. Eta iruzkin atsegin batzuk ere bai, bospasei, gehienak senitartekoenak. Txikien intimitatearen gaineko zalantza batzuk sortu zitzaizkidan, baina nahiko kontent geratu nintzen emaitzarekin.

Poz txiki bat ere eman ohi didate balorazio positiboek, eta pittin bat goibeldu edo apaldu, aldaratearen arabera, negatiboek. Baina zer balio dute benetan? Eta horiek ez badute asko balio, zerk balio du benetan? Nire kasuan, ez gauza bakar batek, noski, baina badut adibide bat. Antzeko bi eskaintza jaso ditut oso denbora gutxian, eta ez nolanhiko eskaintzak, bi familiaren eskutik: etxe handi bat erosi, bitan zatitu eta familia bakoitza parte batean geratzeko eskaintzak.

Gauza asko esaten dizkit halako proposamen batek, edo nik honela itzultzen ditut, nire komenientziara: "Nire bizitzaren parte izan zaitezen nahi dut", edo "bizi-proiektu bat eraiki nahi dut zurekin batera", edo, zergatik ez, "arriskua hartzea merezi du zurekin baldin bada", edo antzekoa izan daitekeen "fidatzen naiz zutaz". Urrunegi joan naiz? Agian bai. Eta tira, hala izanda ere, horiek ere ez didate balio bizitza osoan laino batean bizi nadin, baina poz poxi bat sortzen dute nigan, eta zerbait gehiago ere bai, erdi ezezagun batek ematen dizkidan *like*, izar, puntu eta abarren aldean. ●

Ekologikoa aukeratuz denok irabazle

Nafarroako Salmenta Puntuen eta Jatetxe Iraunkorren Sarea

Kontsultatu hemen Nafarroako saltokien zerrenda

CPAEN NNPEK

eko-logikoak para vivir mejor

UNIÓN EUROPEA

cpaen.org navarraecologica.org

“

Kontatzen ez bazara, kontatzen zaituzte.

Katixa Agirre

Bada esaldi bat
pentsamendu bakoitzarentzat...

Badakizu?

Egin zaitez **Jakinkide**

Urtebetez doan.

Paperean edo digitalean
etxean jasoko duzu.



Jakin _____ dabilen
pentsamendua

ZESTOA

HERRI BAT BERE ZAINZA EREDUA SORTZEN

Zestoa Gipuzkoako Urola bailaran dagoen herria da. 3.800 biztanle ditu. 2019tik zaintza sarea garatzen ari dira: herriko baliabide profesional guztiak koordinatu eta zestoarrek elkar zainduko duten eredu komunitario bateranzko bidea egiten hasi dira. Udalak du egitasmoaren gidaritza eta koordinazio lanetan ari da San Juan Fundazioa. Zestoak abiapuntu oso aproposa du udalerrriak nahi duen zaintza eredu diseinatu dezan: adinekoen San Juan egoitza izaera publiko sendoko fundazio batek kudeatzen du, eta Gisasola egoitzaren jabea familia bat da. Biak enpresa handien atzaparretatik libre dira.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Saioa Lasa eta Joseba Illarramendirekin gaude, San Juan egoitzako bulego batean. Lasa psikologoa da eta Illarramendi egoitzako zuzendaria. Era berean, herrian abian den zaintza sarearen koordinatzaileak dira. Egoitzaz hizketan ari direla, Lasak, egoitzaren berezitasuna ulertzeko klabea eman du: "San Juan Fundazioaren erabakigunea hau da, hemen biltzen gara eta hemen erabakitzen da". Hirurok eseri garen bulegoko mahaiaz ari da. San Juan egoitza izen bereko fundazioak kudeatzen du, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua da, izaera publikokoa, ordea. EAJko eta EH Bilduko zinegotzi bana, eta langileen, egoiliarren eta

herritarren ordezkari bana biltzen dira mahaiaren bueltan; lehendakaria alkatea da. Egoitzak 40 plaza ditu, hamabost pertsona artatzen ditu eguneko zentroan, eta zortzi etxebizitza babestuetan. 60 langile inguru dituzte eta ez dute inolako zerbitzurik azpikontratatu. Gutxi gelditzen badira ere, Gipuzkoan badaude izaera publikoko egoitza batzuk, baina ohikoena da enpresa handiei kudeaketa esleitzea, eta ondorioz, egoitzetako erabakiak enpresek hartzen dituzte. Illarramendik argi dauka fundazioaren klabeetako bat independentzia dela, "lanerako askatasuna daukagu, erabakigunea herrian dagoelako". San Juan egoitza *rara avis* bat da. Horrek

ez du esan nahi bere kabuz dabilenik. Gipuzkoako Foru Aldundia zainketen tokiko ekosistemak sustatzeko Zaintza HerriLab ekimena ari da lantzen. Gune horretan zaintza eredu berriez gogoeta egiten ari dira eta Zestoa ekimen horretan dago Zestoako Zaintza Sarearen bitartez.

Herrian "goiko" egoitza eta "behekoa" daude. "Goikoa" da San Juan egoitza eta "behekoa" berriz Gisasola. 38 plazako egoitza txikia da, jabetza pribatukoa, Zestoako familia batena, nahiz eta ez diren herrian bizi.

Ez da kasualitatea erreportajearen Zestoako zaintza sarea azaltzen hasi eta herriko bi egoitzen erradiografiatxoak egitea



San Juan egoitzako bizilagunak eta herriko ikastetxeko ikasleak astelehenetik ostiralera egoten dira elkarrekin. Zaintza ez dute zahartzaroarekin soilik lotu nahi eta belaunaldien arteko harremanak sendotzea da helburuetako bat.

abiaburuan. Illarramendik horrela laburu du bi egoitzen ezaugarrien garrantzia: "Zaintzaren inguruan herri proiektu bat gauzatzeko baldintzak betetzen dira". Herriari begira daude biak, erabakiak hartzeko askatasun handia dute, eta eredu komunitarioaren aldeko apustua egin dute.

ERAGILETZA SENDOA

2019an, zaintza sarea martxan jartzeko sugarra San Juan egoitzak eta 3Z elkarteak piztu zuten. Biak ari ziren zaintza eredu komunitarioaren inguruan hausnartzen eta herrian aurkezpen bat egin zuten. Ondoren etorri zen udala, eta Izarraitz proiektua abian jarri zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiren diru-laguntzari esker. Gaur egun udalak du egitasmoaren gidaritzza eta koordinazio lanetan ari dira San Juan Fundazioko Saioa Lasa eta Joseba Illarramendi. Zaintza mahaian hainbat eragile dago: Udaletik alkatea, EAJko eta EH Bilduko zinegotzi bana, eta Gizarte Zerbitzuetako langile bat; egitasmoaren bi koordinatzaile orokorrak; bi egoitzak; Zabalduz kooperatibako hezitzailea; Jubilatuen Elkartea; Zahartzarua Zaindu Zestoan elkartea (3Z), Osakidetza; kiroldegia; herri ikastetxea; Gaztelekua; parrokia; eta bederatzi auzotako ordezkari bana. Asmoa mahaira eragile are eta gehiago batzea da. Egitasmo honetan egoitzen ezaugarriek duten garrantzia azpimarratu dugu; bada, eragileak funtsezko zutabe dira, baldin eta herrian gauzatuko duten zaintza eredu komunitarioa herriak pentsatzea eta bideratzea nahi bada.

ZER EGIN DUTE, ZER EGIN NAHI DUTE

Eredua asmatu behar da. 2023 eta 2026 arteko plan estrategikoa gauzatzeko ari dira gaur egun. Lau lan-ildo dituzte: zaurgarritasun egoeren detekzio goiztiarra (bakardade ez hautatua), nola eta non zaindu erabakitzea, egoera zaurgarriari erantzuteko zerbitzuak garatzea, eta proiektuaren bideragarritasuna lantzea. Lehenengo gauza egoera zaurgarrian egon daitezkeen herritarren mapa osatzea izan da. 2021eko datuen arabera, 65 urtetik gorako 164 herritar bakarrik bizi dira, eta 80tik gorakoak 67 dira. 241 adineko beste adineko batekin bizi dira. 2035ean bakarrik biziko diren adinekoak 250 izango direla aurreikusi dute. Zaurgarri izateko arriskuan dauden herritarren datuak Gizarte Zerbitzuetan dituzten beste batzuekin (ospitalean egon den, egoera ekonomikoa...) gurutzatzen dituzte, eta hala, herritar bakoitzaren informazio osoagoa dute.

Mapa osatu eta gero hasi zen lanean Ane Lizaso. Bera udalak azpikontrataturako Zabalduz kooperatibako hezitzailea da. Ordenagailuan daukan informazioa bahetu eta beharra izan dezaketen pertsonak atzematen ditu. Batzuei etxera bisita egiten die, beste batzuei telefonoz deitu. Prebentzio lana da berea.

Bakarkako esku-hartzeek gain, ordea, zaintza kolektiboagoak lantzen ari da Lizaso. Asmoa zen bakarrik bizi den pertsonak auzoko baten laguntza izatea, nolabaiteko bikoteak sortzea, beti ere bien arteko adostasunarekin. Ez dute lortu horrelako bikoterik, batez ere zaintzailearen kezkatik: Zer pentsatuko du bere familiak? Auzoan usteko dute kontakatilu bat naizela? Hala ere, Lizasok esan digu

Egitasmoaren helburua zailtasun administratibo instituzionalak sortutako hutsunea zaintza komunitario bidez betetzea da

horrelako zaintza-bikoteak lehendik ere badaudela, baina ez dutela nahi izan haien harremana formalizatzerik, ziurrenik horretarako premiarik ez dutelako sentitzen.

Beraz, bikotekako zaintza eredia baino molde kolektiboagoak garatu dituzte. Herri erdigunean doza bat laguneko taldea bildu du Lizasok, paseoan eta bingoan ibiltzen dira, eta bi egoitzetara bisitak egiten dituzte. Sarea garatzen joatea nahiko luke, baina adinekoek gain beste belaunaldi batzuk ere kontuan hartuko lituzkeen sarea dauka buruan. Elkarrizketan asko aipatu duen hitza "sentsibilizazioa" da: "Bakardadea zaharren kontutzat hartzen da eta gaur egun gazteagoek ere bizi dute hautatu gabeko bakardadea". Zaintza sarean beharra daukan edozein adinetako pertsonak parte hartzea lortu nahi du eta horretarako denentzat erakargarri diren ekintzak pentsatzen ari da.

Zestoa oso herri sakabanatua da, hamaika auzo ditu, gehienak landa eremuak, eta ez erdigunetik gertu. Lizaso hezitzaileak badaki hori eta kontuan hartu beharreko ezaugarria dela uste du. Aizarna auzora zaintza sareaz hitz egitera joan denean egin du topo errealitate horrekin. Alegia, auzokoei ez die balio Zestoa kax-

koan antolatzen ari diren zaintza sareak, haien beraien zaintza sarea nahi dute. Lizasoren beste helburuetako bat horixe da: auzoetan zaintza taldeak garatzea. Aizarnarekin hasi da. Bospasei jubilatuta "gazte" astero elkartzen hasi dira eta auzoko zaintza sarea garatzen laguntzeko prest daude. Beraiek ideiak lantzen dituzte eta Lizasok laguntzen die forma ematen. Lehen aipatu dugu ez dutela lortu bikoteen moldea garatzea, baina bestelako zaintza lanak egiten dituzte talde horretan. Tarteka Lizaso ohartarazten dute: halako aste honetan ez da etorri kafea hartzera, halako ez dugu ikusi aspaldian kalean... Lizasok belaunaldi arteko harremanak garatzeko asmoa auzoetara ere eraman nahi du. Ekintza xumeekin hasi dira pausoak ematen. Mus txapelketa antolatu zuten: "Agian, txorakeria irudituko zaizue mus txapelketa antolatzea, baina ez da. Hainbat belaunalditakoak batera aritu ziren eta batzuek elkarren izenik ere ez zekiten". Aizarna auzoak 300 biztanle inguru ditu. Auzoetara zaintza sarea aurkeztera joan eta dezentetan esaten diotena: halako eta halako zerbitzu ez dauzkagu, azpiegitura hau eta hau ere falta zaizkigu. Lizasoren ustez, eskatu beharrekoak eskatu behar dira, baina herritarrek pentsatu behar dute beren kabuz elkar zaintzeko zer egiteko gai diren.

NON ETA NOLA NAHI DUGU ZAINDUAK IZATEA?

Plan estrategikoaren bigarren ildoari dagokionez, herritarrek nola eta non zainduak izan nahi duten hausnartzen ari dira zaintza mahaian. Illarramendik dio eredia ez dela kanpotik eta goitik etorriko, eta beraz, pentsatzea eta asmatzea dagokiola zaintza mahaian. Batez ere bi egoitzak eta 3Z elkartea ari dira lan horretan. Egoitza bakoitza bere zaintza eredia ari da lantzen, 3Zk berriz, norbere etxeetako zaintzari begira egiten ditu ekarpenak. Besteak beste, herritarrek haien bizitza plana egiteko moduak aztertzen ari dira, hau da, zainduak izateko beharra etorri baino lehen, norberaren nahiak idatziz jasoko lirateke: non nahiko lukeen bizi (izan egoitza, bere etxea, etxebizitza komunitarioak...), nor zaindua izatea nahiko lukeen, norekin bizi nahi duen, nola hil nahi duen.

Hirugarren ildoak zerbitzuak eta azpiegiturak garatzea da. Herriko baliabideen ebaluaketa eginda daukate. Illarramendiren ustez, zerbitzuek eta azpiegiturek "nola bizi nahi dugu?" galderari erantzun behar diote. Herrian galdeketa egiten ez badute ere, oro har,

datuek diote jendeak etxean zaindua izatea nahi duela. Kultura eta jakintza maila igo da, espektatiba handiagoak dauzkate herritarrek, askok bikotean bizitzen jarraitu nahi dute... eta baliabiak ez daude prestatuta nahi eta behar horiei erantzuteko. Saioa Lasak egoitzetan sarri gertatzen den egoera bat kontatu du: adineko bat ezin dute etxean zaindu eta egoitzara eraman dute. Etxean, haren bikotekidea gelditu da, bakarrik, eta hura ere adinekoa. Etxean gelditu dena ez da sartzen dependentsia dutenen inongo sailkapenetan, bere kabuz moldatzen delako, baina "galduta geratu da, bere zutabea desagertu da, bikotea banandu dute". Araudiak aldatu eta bikoteak hartzeko aukera egotea aldarrikatu dute Lasak eta Illarramendik.

Egoitzako zuzendariari ez zaio gusztatzen bereizketa egitea, egoitza, etxe-

bizitza babestuak... Bere iritziz, "denak bat izan behar du, denak etxea izan behar du". Elkarriketa hasiera-hasieratik aipatu du "etxea" kontzeptu moduan: "Instituzioak esaten dio egoi-larrari nola bizi behar duen egoitzan, eta ez luke horrela izan behar. Gu kaletik gatoz toki honetara zerbitzu bat eskaintzera eta haien etxean sartzen gara, errespetu handiz".

Laugarren ildoan egitasmoaren bide-ragarritasuna lantzen dute. Herri ekimeneko proiektua da, udalak bideratua. Bai udalak, bai San Juan Fundazioak, baita 3Z elkarteak ere diru-laguntzak lortu dituzte Foru Aldundiaren eskutik. Eragile bakoitzak finantzazio publikoari esker egindako ikerketa eta lanketa denak zaintza mahaian aurkezten dituzte, eta herri proiektua garatzen laguntzeko baliatzen dituzte.

ZAHARTZAROA EZ DA GAZTEEN KONTUA

Ordu eta erdiz hizketan jardun ondoren aurrera begirako erronkez galdetu diegu egoitzako bi langileei. Helburua gazteak erakartzea da. Zestoan, gizartean orokorrean bezala, gazteek urrun sentitzen dute zahartzaroa, baita zaintza kontuak ere, nahiz eta beraiek izan etorkizunean behar-erak edukiko dituztenak. Herriko ikastetxea eta Gaztelekua eragileen zerrendan daude, baina 18-60 urte arteko herritarrek egitasmoa ez dute bere sentitzen.

Distira guztiak ez dira urre, eta egitasmo honetan ere badituzte zailtasunak. Illarramendik bi nabarmendu ditu. Batetik, eragile batzuek pentsatzea lan erritmoa motelegia dela eta nekez ari direla aurrera egiten. Kezka bera du herriko alkateak, Mikel Arregik. Azken horrek eragiletza indartsu eta saretua dagoela goraiatu

JUBILATUEN ELKARTEAN EGUN-PASAK DIRA IZARRA



300 bazkide ditu Zestoako Jubilatuen Elkarteak. Hasieratik daude zaintza mahaian, eta hori baino lehen ere udalarekin harreman estua zuten adinekoekin lotura duten kontuetan. Oso pozik daude zaintza egitasmoaren kudeatzaile lanak udalak hartu dituelako eta koordinazio lanetan profesionalak jarri dituztelako. Argi dituzte beraien egitekoak: "Gu laguntzaileak gara, boluntarioak. Ez dugu ur handitan sartu nahi".

Bi ekintza izar ditu elkarteak. Batetik, herritik atera eta egun-pasak antolatzen dituzte. Arantxa Rezabal eta Jesus Odriozola elkarteko kideek oso garbi dute zein den egun-pasen helburua: "Jendeak elkarrekin egon nahi du, auzokoak ikusteko

aukera da, ondo pasa eta ondo jan nahi dute. Hori ere zaintza da". Bestetik, kirol-degiarekin elkarlanean, Zestoa Osasuntsu ekimena antolatzen laguntzen dute. Herrian ibilaldi motz eta luzeak egiten dituzte. Osasun fisikoaz bestelako helburu asko ditu ekintzak. Adibidez, ibilaldi laburrean autonomia oso gutxi daukaten herritarrek ere hartzen dute parte: "Ez da beharrezkoa ibiltzea, gurpildun aulkian joateak ere balio du. Kontua da etxetik ateratzea, sozializatzea, txorizo muturra jatea...". Hasierako asmoa etxean bakarrik zegoen jendea ateratzen laguntzea zen, baina nahi baino askoz gutxiago lortu dute. Elkarteko boluntarioak bakarrik bizidun jendearekin harremanetan jartzea ez

da erraza izan: "Ez dakigu legalki ere nola jokatu genezakeen eta senideek zein jarrera hartuko duten ere kezkatzen gaitu".

Oro har, elkarteko kideek zaintza-radarra beti aktibatuta daukate. Badakite haien inguruan, kalean... norbait beharrean sumatzen badute udaletxean abixua eman behar dutela, eta ohikoa da adinekoak zuzenean udalera eskaerak egitera joan beharrean elkartera jotzea. Herrian hobetzeko zer dagoen galdetu diegunean administrazio publikoetako aje ezagun bat aipatu dute: burokrazia. Hala bildu dute haien iritzia esaldi batean: "Lehenengo paperak eta gero pertsona ez, lehenengo pertsona, eta gero egingo ditugu paperak".

du eta horrek zailtasun erantsia duela: "Abiadura desberdinak dira, presioa egiten dute, eta ondo dago presioa egitea. Kudeaketa administratibo instituzionalak bere denborak ditu eta erritmoak bateratzerakoan kontraesanak sortzen zaizkigu. Talkatxoak dauzkagu, beti ere era sano batean. Atzera begiratzen badugu, uste dut egin dugula bidea".

Bestetik, Lasak eta Illarramendik azpimarratu dute Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren araudiak zurrinak direla. Hain zuzen, herrirako egokia den zaintza eredia "asmatzen" ari direla, gauza berriak probatzea dagokie eta lege aldetik malgutasunik ez izateak bidea zailtzen die. Adibide argi bat aurrerago aipatu duguna da, alegia, dependentzia baldintzak betetzen ez dituelako, haren bikotekidea egoitzara eramanda, bere etxean bakarrik utzi den zaharrarena. "Beti borrokan gabiltza. Bikotea ez litzateke banatu behar, egoitzak bien etxea izan beharko luke". Beste adibide bat ohe bakarreko logelena da. Foru Aldundiak logelak hala egituratzea eskatzen die, baina horrela, bikote direnek ezin dute gela elkarbanatu.

Mikel Arregi alkatea gustura dago zaintza mahaiak hartu duen bidearekin. Deskoordinazioa zegoela dio, udala alde batetik, egoitzak beste alde batetik, informazio truke nahikorik gabe eta zerbitzuen berri elkarri eman gabe. Orain, zaintza mahaiak egiten du koordinazio lana, bai baliabide profesionalena, baita baliabide informala ere. Udalaren zerbitzu nagusiak dira etxebizitza babestuak, eguneko zentroa eta etxez etxeko zerbitzua. Lehenengo bien kudeaketa San Juan Fundazioari esleitua dio, eta egoitzaren eraikin berean daude. Udalak zuzenean kudeatzen duen zaintza zerbitzurik garrantzitsuenak etxez etxekoa da. Behargin guztiak udal langi-



DANBOLIN

leak dira. Arregik dio Gipuzkoan lau udal-letan baino ez daukatela zerbitzu hori azpikontratatu gabe. Eredu horren aldekoa da, baina adierazi du zailtasunak eragiten dituela. Gaur egun 38 pertsonengana iristen dira, "ez gara ailegatzen denengana, eta udalak ez dauka ahalmen ekonomiko zein segurtasun juridikorik kontratazioetarako, ez badauka Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarik". Zestoa azalera handiko herria da eta udalaren radarretik kanpo egoera zaurgarrian dauden hainbat pertsona daude. Arregiren ustez, "herri proiektu honek zaintza ekosistema berri bat sortzen lagunduko du, non auzo-zaintza bidez udalaren zaintza sistematik kanpo dauden herritarrak ere zaintzeko baldintzak sortuko diren". Udalak langile gehiago kontratatzea ekonomikoki bideragarritzat joko balu ere, ezin dute halakorik egin, zor publikoa kontro-

latzeko balio duen legeak ez dielako uzten kontratazio gehiago egiten. Egitasmoaren helburua zailtasun administratibo instituzionalak sortutako hutsunea zaintza komunitario bidez betetzea da.

Baliabide ekonomikoak behar dira etxez etxeko zaintza eskaintzeko, eta are baliabide gehiago behar dira herriko zaintza sare osoa diseinatzen jarraitzeko. Alde horretatik, alkateak eskertzen du Foru Aldundiaren jarrera, haren eskutik finantziarioa lortzen ari direlako. Kritika bat ere badu, San Juan egoitzako kudeatzaileekin bat egiten du horretan: "Administrazioa oso zurruna da. Etxez etxekoa udalak eskaintzen du, baina menpekotasun ebaluaketak Foru Aldundiak egiten ditu. Guk ez dugu erabakitzen zeinek duen beharra, zein bideratu egoitzara edo etxe babestura. Pertsonen zaintza erraztu ordez zaildu egiten da horrela". ●

urriak 24 - azaroak 14

Egin eskaera!



errigora.eus

Eman bultzada,
indartu euskara

Agerreko uzta euskarari puzka

3Z, ELKARTE ALDARRIKATZAILEA



DANBOLIN

Elkarteko kideek etxeko zaintzan esperientzia dute, eta gehienak jubilatuz gazteak dira. Hasieratik daude zaintza mahaian. Ikuspegi feminista du, gizarte lan eta ekintzetan ibili ohi diren jubilatuzak dira eta norabide aldarrikatzailea eman nahi diote taldeari, erabiltzaileen eta familiakoen ikuspegitik. Gurasoak etxean zaintzea zer den bizi izan dute eta beren buruei hau esan die: "Guk ondorengoei ez diegu hau pasako, horrela ezin da". Xanti Ugarte eta Joxe Mari Olaizolarekin hitz egin dugu eta zaintza krisia arazo politikotzat dute, lehen lerrora ekarri beharrekoa. Erakunde publikoak interpelatzen dituzte, baina argi daukate politikariek eta teknikariek bakarrik ez dutela konponduko, herritarrek behar direla, komunitatea. Asko goraiatu dute San Juan egoitza

kudeatzen duen San Juan Fundazioa. Pozik daude "egoitza irekia"ren kontzeptua lantzen ari direlako, herrira begira ari direlako lanean. Aldiz, herrian 2019an abiatu zen Zestoako Zaintza Sareak etxez etxeko zaintzari oso gutxi erreparatu diola uste dute. Besteak beste, etxeetan zaintza lanean ari diren jatorri atzerritarreko emakumeen eskubideak aldarrikatu dituzte eta haien lan baldintzak salatu. Zaintza sarearen bitartez gauza asko egiten ari direla aitortzen dute eta zaintza mahaian buru-belarri ari dira. Hala ere, eskertuko lukete udalak ausartago jokatzeari, alternatibak bilatzea, haien ustez egitasmoa motelegi doa. Foru Aldundiak diru gehiago jarri behar duela uste dute, zaintza zerbitzua duinagoa izan dadin. Bestalde, eztabaidagai dute nori zer dagokion, hau

Erakunde publikoak interpelatzen dituzte, baina argi daukate politikariek eta teknikariek bakarrik ez dutela konponduko, herritarrek behar direla

da, zein lan eta ardura hartu beharko lituzkeen udalak eta zein komunitateak. 3Zkoen ustez, herritarrek egin ditzaketen lanak baliabide profesionalen bidez bideratzen ari dira, adibidez, bakarrik bizi diren zaharren artikulazioa eta etxetik ateratzen laguntzea boluntarioek egiteko moduko lanak direla dio elkarteak.

Diferentziak diferentzi jubilatuz hauek haien proposamenak egiten jarraitzen dute zaintza mahaian. Buruan darabiltzate hainbat ideia. Batetik, zaharrentzako hainbat zerbitzu bilduko lituzkeen gune sozial bat irekitzea nahiko lukete. Bestetik, San Juan egoitzak zaintza profesional guztiaren zuzendaritza eramatea proposatzen dute.

Elkarteari begira kide berriak edukitzea dute helburu, eta gizonezkoak zaintzan inplikatzeari.

bertako
igogailuak | ascensores

-rekin BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus

“ ”

“Sare sozial komertzialetan inertziaz jarraitzen dugu, baina ez gara emaitza onak lortzen ari”

MARTA G. FRANCO

Gorrotoa sustatzen duten algoritmoak, mendekotasuna sortzeko diseinatutako aplikazioak, pertsonak beharrezko publizitate-hartzaileak ikusten dituzten plataformak, merkantzia gisa tratatzen gaituzten sare sozialak... Badirudi azken aldirian Internetetik toxikotasuna baino ez dugula jasotzen, baina beti ez da horrela izan. Une jakin batzuetan Internet gehien bat pertsona izan zen. Beraz, orain ere berreskura dezakegu eta teknologia hori gehiengoaren zerbitzura jarri. Horren inguruan hitz egin dugu Marta G. Franco hacktibista eta kazetari madrildarrarekin, Euskarabildua jardunaldietan eman zuen hitzaldiaren ondoren.

AXIER LOPEZ DANILANCO / ARGIA CC BY-SA

Internet asmakizun zoragarria al da? Internetek, bere arazo guztiekin, inoiz asmatu den komunikazio-tresnarik globalena, unibertsalena eta demokratikoen izaten jarraitzen du. Potentzialki, bere oinarritzko azpiegitura oso ondo dago, munduan zehar ordenagailu eta gailu asko konektatzeko aukera ematen diguten zerbitzari eta protokoloen mailan. Arazoa da nola garatu den teknologia horren enpresa-geruza.

Interneten sorrerari buruzko memoria lapurtu digutela diozu. Bai, Elon Musken, Marck Zuckerbergen eta Silicon Valleyn gertatu diren kon-

tuen inguruko dozenaka biografia dau- de. Eta, aldiz, gutxiegi daude ordezkata ezinbestekoak diren beste alderdi batzuk, ikerketa-zentro publikoetan, herritarren berrikuntzarako guneetan, hacklabetan eta, oro har, gizarte zibilean gertatu direnak.

Lehen sare sozialen etorrerarekin, mugimendu sozialek eta komunikabide independenteek uste genuen hor aurki genezakeela modu bat monopolio komunikatiboari aurre egiteko. Luzaroan erabilgarriak izan dira. Oraindik ere balio digute. Gertatzen dena da

lekua galtzen ari garela. Interneten sorreran, gaur egun sarea kontrolatzen duten enpresa horiek guztiak sortu aurretik, komunikazio-espazio oso indartsuak sortzeko gaitasuna zegoen, parez pare, ez baitzen hainbestekoa munstro teknologikoen gaindimentsioa.

Baina urte batzuk igaro dira, eta hor ere gailendu dira bankuen eta multinazionalen interesak. Plataforma sozial komertzialen ingurunea gero eta lehiakorragoa da. Alde batetik, publizitate hutsezko komunikazioerako erabiltzen duten markaz josita dago. Eta, bestetik, indar erreakziona-



rioek okupatuta dute, Twitter eta Facebook bidez iraultzak egin genitzakeela iruditzen zitzaigun garaian, mugimendu sozial guztiei erantzuteko antolatzen hasi zirenak, 2010 inguruan.

Orain nik "Gorrotorearen Internazionala" izenez ezagutzen dudana antolatu dute. Taktikak, baliabideak eta diru asko partekatzen dituzten gizon batzuk dira. Zertarako? Steve Bannonek, Trumpen lehen kanpainako ideologo estrategikoak, horrela laburbildu zuen estrategia batean inbertitzeko: "Espazio osoa kakaz betetzea". Hau da, eduki toxiko askorekin espazio guztia okupatzea, lehen hein batean jendeak elka-

rrizketa garrantzitsuak izateko, elkar ezagutzeko, politikoki antolatzeko edo, besterik gabe, dibertitzeko balio zuen espazio digitala.

Denbora batez sare sozial komertzial horiek baliagarriak izan zitzaizkigun, baina egunetik egunera gero eta gutxiago. Horregatik, hortik irteteari buruz pentsatu behar dugu, gero eta lehiakorragoak diren espazio horietan zokoan geratzen ari garelako. Oso arreta txikia eskuratzeko, guk baino baliabide gehiago eta eskrupulu gutxiago dituzten erraldoi teknologikoekin ari gara lehia-tzen. Gero eta leku gutxiago dugu geure kontuetarako.

Nolanahi ere, kontraesana dirudi gizarte hobea nahi duen orok sare sozial toxikoak elikatzen jarraitzeak, ezta? Baina ateratzea ez da dirudien bezain erraza.

Espazio horietan zergatik egon nahi dugun aztertu behar dugu. Ulertzen dut gure helburu nagusia dela jendearekin hitz egin ahal izatea. Hortik abiatuta, zer emaitza izaten ari garen aztertu behar da.

Kontua da gero eta nabarmenagoa dela sare guztietan, eta bereziki Twitterren, azken hilabeteetan nola aldatu den ikusita, diru asko inbertitu behar dela benetan jendearengana iristeko. Gezurra da eduki onekin eta argitasun

pixka batekin birala egingo zarela. Ez da hala, zure edukien publizitatea ordaindu beharko duzu, Premium kontua beharko duzu -Twitterreko algoritmoak gehiagotan erakusten ditu ordaintzen duten kontuen edukiak-... Gainera, edukietan dirua jarri beharko duzu, kasu askotan komunitate faltsu batean inbertituko duzu, zure edukiaren alde agertuko diren troll eta bot-ekin, atzean jende asko duzula irudikatzen. Hori guztia guk ez dugu eskura, haiek bai.

Inertziaz hor jarraitzen dugula uste dut, baina ez gara emaitza onak lortzen ari. Biraltasunaren ilusioak eraman gaitu, noizbait, kasualitatez, milaka pertsonarengana irits gaitezkeelakoan.

Gainera, komunikazio mota hori oso hegakorra da. "100.000 pertsonak ikusi dute bideo hau", esaten dizute, baina ziur aski lehen bost segundoak baino ez dituzte ikusi, eta gainera mugikorren beste zerbait egiten ari zirela.

Komunikazio mota hori oso urrun dago komunean zerbait eraikitzeko aukeratik, zarata handia baitago plataforma horien inguruan. Beste mota bateko komunikazio-prozesu pausatukoak baloratu behar ditugu, jendearekin modu jarraituagoan hitz egiteko espazio komunak sortzea ahalbidetuko digutenak, elkartrukeak eta elkarrizketak egon daitezten.

Beste joera bat ere badago, pandemiaren ondoren nabarmenagoa dena: teknologia berri oro deabrutzea eta inoiz itzuliko ez den iragana aldarrikatzea.

Silicon Valleyren jostailu berri bakoitza probatu beharrari, *hype*-ari aurre egiten dioten pertsonak egotea positiboa iruditzen zait. Hala ere, pertsona horiekin eztabaidatu nahi nuke, eta ikusi ea beste teknologia batzuk elkarrekin pentsa ditzakegun, kontuan hartuta ezinezkoa dela guztiari



uko egitea, Internet gabeko mundua ez baita itzuliko. Aplikazio jakin batzuk erabiltzen ez badituzu ere, denok datifikatuta gaude. Kobazulo batera bizitzera joan ezean, hiri eta herrietan biziz gero, datifikazio-prozesuetatik pasa beharko dugu denok. Orduan, uste dut zentzu handiagoa duela ahalduz-jarrera hartzen saiatzea saihestu ezin izango dituzun prozesu horietan esku hartzen saiatzeko.

Egun bizi gaituen turbokapitalismoaren garapenerako pieza nagusietako bat izateagatik bakarrik, Internetek funtsezko borroka-eremua izan beharko luke ezkerrentzat. Baina ez dakit ideia hori oso barneratuta dugun.

Jakina. Ez dago modu orokor horretan barneratuta, baina uste dut denok dakigula Airbnb, Uber, Deliveroo eta horiek guztiak hiriak eta zenbait lan-sektore izorratzen ari zaizkigula, edo Euskal Herriaren kasuan, tresna horiek nola zapaltzen diguten hizkuntza aniztasuna.

Ez dut uste borroka klimatikoa, etxebizitzaren aldekoa edo lan-eskubideen defentsakoa baino garrantzitsuagoa denik Internetekoa, baina borroka horietan guztietan erabili beharko dugun tresna eta oinarria da Internet.

Ez dirudi hizpide ditugun gai hauek alderdi politikoetako gai-zerrendan edo, oro har, politika instituzionalean daudenik.

Bai, hala da. Lehen zerbitzariak publikoak ziren eta azken urteetan Googlek eta Microsoftek berentzat hartu dituzte. Badira gai hauek kontuan hartzen ez dituzten politikariak, baina, bestalde, politikari bakar bat ere ez da aituza gai guztietan. Kontua da aholkularitza behar dutela eta *Big Tech*ek baliabide asko eta diru asko erabiltzen dituztela lobby lanak egin, gai horietan burua asko jan nahi ez duten arduradun publikoei erraz jarri eta politikak "bide onetik" doazela ziurtatzeko.

AZAROAK 7-17

HARIAK

Erresistentzia istorioen zinemaldia

hariak.hernani.eus

Instagram Facebook X

@hariakzinemaldia

Hernaniko Udala

Erantzukizunaren beste zati bat ere badago: Europar Batasuneko erregulazioak. Izan ere, enpresa txikiagoentzat baino askoz errazagoa da Google bezalakoentzat, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra "erosteko" gai diren abokatuen armada bat edukita.

Teknologia eta dekolonitatea. Esaldi berean behar adina entzuten ez diren bi termino.

Sarriago ala gutxiagotan, teknologiar buruz irakurtzen dugun tokiaren arabera. Latinoamerikako lankide feministek denbora asko daramate gai hori lantzen, eta irakurri beharko genituzkeen gauza interesgarri asko dituzte.

Alde batetik, gaia datuen estraktibismoarekin lotuta dago. Prozesu hori askoz ere bortitzagoa da Hegoalde globalean, eta horrek zerikusia du *Big Tech*ek lanaren zati aspergarri eta gogorrenak nola azpikontratatzen dizkieten gutxiago kobratzen den lekuetako pertsoneri. Programazioaz, datuen filtrazioaz, edukien migrazioaz eta abarrez ari gara. Eta bai, ziur aski Indiako pertsona batek gehiago irabaziko du lanean TikTok-eko datu nazkagarriak filtratzen kalean taxia gidatzen baino, baina prozesu horretan gehien irabazten duena Kalifornian dagoena da, CEO gisa dirutza kobratzen.

Dekolonitate teknologikoak lehengaiak gatazka-guneetatik ateratzearekin du zerikusia, gehienetan mineralak. Eta, era berean, energia eta ur asko kontsumitzen duten datu-zentro handien kokapenarekin lotuta dago, botere eta pribilegio zentroetatik ahalik eta urrunen jartzen dituztenak.

Kultura-aniztasunaren galera ere kontuan hartu behar da. Multinazional mota horiek diseinatutako tresna jakin batzuk erabiltzeak, jakina, pentsatzeko eta sortzeko beste molde batez eta beste hizkuntza batzuetan egiteko gaitasuna kentzen du. Latinoamerikako lankide feministek epistemizidioaz hitz egiten dute. ●

Gaizkiaren zaldunak

Sare sozialen toxikotasunaren ikurra, are gehiago Elon Musken etorreraren ostean: Twitter

Twitter, gaur egun, adibide argia da: plataforma itxi baten aldeko edozein apustu, deszentralizatuta ez dagoena, gaizki aterak daiteke. Denbora batez Jack Dorsey, Twitterren sortzaileetako bat, erdi gogoko genuen, Twitter komunikazio politiko aurrerakoa egiteko erabil zitekeela iruditzen zitzaigun. Beno, ez dakit ezkerrekoa zen, baina behintzat ez garratza. Baina urte batzuetara, enpresa beste tipo batek erosi, edonor dela ere, eta funtzionatzeari utzi dio. Uste dut hori dela adibiderik mingarriena. Ez da jendeak gehien erabiltzen duen sarea, baina kazetaritzan, aktibismoan eta politikan gehien erabili duguna da. Komunitateak eraiki ditugu hor, jarraitzaile askorekin, eta bat-batean ondare hori gutzia galdu egin dugu.

Balio guztia guk, erabiltzaileok, jartzen dugula argien ikusten den sareetakoa da. Teknologikoki oso sare sinplea da -testu laburrak eta bideoen bat partekatzea-, eta balio duena balio du jendeak ematen diolako.

Scroll infinituaren gidariak: Instagram eta TikTok

Bai, TikTok are gaiztoagoa da. Sare sozialen historian lehena Facebook da, eta komunikatzeko diseinatuta

zegoen. Facebooken zerbait jartzen zenuen, komentatzen zizuten, zure lehengusuarekin hitz egin edo eztabaidatu zenezakeen, ezagutzen ez zenuen norbaiten lagun bat ezagutu, lagunak egin zenitzakeen... Nolabaiteko soziabilitaterako espazioa zen. TikTok telebista bat da. TikToken bideoak ikusten dituzu eta gehienez bihotza ematen diezu. Mega gero eta gehiago TikTokera ari da hurbiltzen. Instagramek gero eta gehiago eskatzen dizkizu kontsumo mota horretarako bideoak. *Scrolling*-erako diseinatuta daude, jarduera gutxiagorako; horrela, sare sozialen alderdi soziala galtzen ari dira. Izan ere, nire ustez jada ez dira sare sozialak, telebistak edo bitartekariak baizik. Ez dira bi norabidekoak.

"Dena garaje batean hasi zen", American Dream berriaren paradigmak: Microsoft eta Apple

Garaje batean hasi zen dena... zure amaren inbertsio batekin, andre aberatsa zena, Bill Gatesen kasuan bezala. Dena garaje batean hasi zen... XIX. mendetik AEBetako garapen teknologiararen egitasmo kaltegarrienen gunean kokatua, armagintza kasu.

"Arrakastaren" erosketa masiboaren ordezkaria: Google

Googleren erosketen zerrenda jaso dute Wikipediako orrialde batean. Ikaragarria da erosi duten guztia, eta bitxia da ikustea beraiek ez dutela ezer egin, besteak erosi eta erosi besterik ez.



Ana Galarraga - Petti

FRANKENSTEIN AGURGARRIA

Victor Frankenstein gutun musikatua

Hitzaurrea Mari Luz Esteban

Hitzostea Miren Agur Meabe

elkar elkarargitaletxea.eus

“ ”

Eoliko enpresak harroago datoz herri txikietara

Urumeako Mendiak Bizirik

Erramun Galparsoro eta Joxe Manuel Muñoz aranoarrak dira. 22 eta 30 urte daramatzate, hurrenez hurren, 440 metroko garaieratik itsasoari begira dagoen eta 114 biztanle dituen Nafarroako herri txiki hartan bizitzen. Inguruetan Repsolek eraiki nahi duen zentral eoliko handiari aurre egiteko sortu berri den Urumeako Mendiak Bizirik taldeko kide dira biak. Aranon gaia nola bizi duten azaldu digute, Kontzejupeko mahai baten bueltan jarrita.

 URKO APAOLAZA AVILA / ARGIA CC BY-SA

Aranoko lurretan zentral eoliko handi bat jartzeko asmotan dabilzala jakin duzue udaran. Nola hartu duzue albistea?

Erramun Galparsoro: Duela bi hilabete inguru zinegotzi batek deitu zidan esanez FE Energy kontsultorako pertsona bat etorri zela –Repsolen izenean– opari mordoxka bat eskaintzen herriarentzat eta zentral eolikoa instalatzeko ideiarekin. Telefono dei bat egin zuten ordua eskatzeko. Lehengo izan dira beste proiektu batzuk, baina horrek erabat asaldatu gintuen.

Maiatzean, Endesa atzean duen beste proiektu baten berri ere izan genuen, kasu honetan Hernaniko mugetan, baina Aranotik bertatik ikusiko litzatekeena. Ze lotura dute?

Joxe Manuel Muñoz: Pentsatzen genuen Endesak Hernaniko partean jarri nahi dituen aerosorgailuen segida izango zela

Aranokoa. Baina azken bileran esan digute asmoa dutela bi proiektu aurkezteko: bata dena hartzen duena (Berastegi, Goizueta, Hernani eta Arano) eta bestea soilik Hernanikoa. Guk ez dakigu ze konexio dauden haien artean, enpresa handiak dira, baina badirudi lehian daudela.

Zaila ematen du sinestea beraien artean informazioa konpartitzen ez dutenik...

Galparsoro: Bai, nahiko modu isil eta zikinean jokatzeko dute. FE Energykoek oso jarrera desberdina izan dute Hernanin edo Arano bezalako herri txiki batean. Hona harroago etorri ziren: “Nahi duzue frontoi berri bat estalia? Kiroldegi bat?...”, gure borondatea erostera bezala. Eta gure eskaera izan da erakusteko non duten zentrala proiektaturik. Baina oraindik ez digute azaldu, ez dorreak, ez ihesbideak, ez ezer.

Muñoz: Konturatzen zara saltzeko oso

zaila den gauza bati buruz ari direla hizketan. Aurreikusten dute jendea ez diola graziarik egingo eta horregatik “bezeroa” edo biktima aztertzen dute lehenik. Orduan, oso modu suabea “konpentsazioak” deitzen dieten hori eskaintzen dizkizute. Agian lehendabiziko kontaktuan jasoko zuten gure kontrako jarrera, eta horregatik bigarren aldia beste jarrera batekin etorri dira, ez hain bortitz, estrategia aldatuta.

Galparsoro: Lehenengo bilera hartan udalak garbi esan zuen ezetz, ordaintzeko prezio altuegia zela.

Duela hogeit hamar urte bazegoen beste proiektu bat inguruan, Iberdrolarena. Zer du eremu honek eoliko enpresei interesatzen zaiena?

Galparsoro: Haizea, eta zona urbanotatik gertu dagoela. Hasten bazara pentsatzen gainak egokiak dira dorreak jar-

tzeko, nahiko lauak... Baina horraino igo egin behar da, eta sarbidea zaila dute.

Muñoz: Nik ere ez dut uste ezaugarri oso erakargarriak dituenik sarbideei dagokienez. Gertatzen dena da duela hainbat urte etorri zirenean plangintza eta teknologia ez zutela hain garatuta eta ez zegoela hainbeste diru publiko hone-tarako. Etorri ziren, egin zuten ikerketa eta gerorako utzi. Hau baino egokiagoak ziren toki asko zeuden. Baina konturatzeko bazara, orain Nafarroako hegoaldea errotaz beteta dago, Araban ere badute mamu bat baino gehiago, mendiak oso egokiak direlako hor, sarbide errazarekin. Orduan zergatik hemen? Ba hau jadanik tsunami bat delako. Burbuila bat da eta diru asko dago jokoan.

Mikel Alvarezen txostenean ingurumenari eta ondareari eragingo lizkioken kalteak azpimarratzen dira. Baina herriari nola eragingo dio sozialki?

Galparsoro: Ez dago neurtzerik, nire ustez herriaren desagerpena litzateke. Ez dira dorre txikiak eta txikizioa handia izango litzateke: eragiten duen zara-ta... Aranok dituen kokapena eta balioak baloratzen ditugu hemen bizi garenok, nahiz eta asko lanera behera joan behar izan. Horiek galtzeko arriskuan daude.

Muñoz: Zaila da ulertaraztea. Aerosorgailuek ekarriko dituzten kalteez hitz egitean, nire ustez baztertu behar dira gaurko ekonomiari loturiko kontzeptuak: hazkundera, etekinak... Nik ez dut zertan pentsatu behar zenbat energia sortuko duten edo zenbat diru emango duten zergen bidez. Zeren hara begiratzen badut

[mendietara], hori guztia bigarren mailara pasatzen da, ez dago justifikaziorik, ez dut horraino iritsi beharrik. Noski, oso gauza konplexuak dira horiek. Guk Rep-solen aurrean defendatu behar dugu gure iritzia, baina jendearen aurrean ere bai, eta hor dago zailtasuna.

Harremanik izan duzue ondoko herrietako jendearekin?

Galparsoro: Ari gara. Lehenagotik baguen taldetxo bat gai hauei buruz hitz egiteko eta auzolana bultzatzeko. Kontu honekin buru-belarri jarri gara. Adituekin izan gara eta ni Etxalarkoekin ere harremanetan banabil; denek gauza bera esan digute: "Hasi mugitzen, lau haizetara zabaldu eta sortu plataforma lehenbailehen". Goizuetan hasieran ez genuen mugimendu askorik sumatu baina orain badabilta batzuk kezkatuta eta hitzaldi bat antolatzeke eskatu ziguten; Mikel Alvarez lotu genuen. Hernanin berriz, Sagarreta taldekoak daude bioaniztasunari lotuta, eta energia burujabetzaren inguruan hitz egiteko hasi dira biltzen.

Hernaniko Udalaren aldetik zer dakizue?

Galparsoro: Oraindik ezer garbirik ez. Badakigu kontraesanak daudela eta badakigu EH Bildun badagoela mugimendu bat gai hauekin kritikoa dena. Gu ez gauden burujabetza energetikoaren aurka, baina hemen datoz erraldoi hauek uste dutenak euren negozioa egin dezaketela nahi duten tokian, legea alde dutelako eta Europako funtsak dituztelako. Kasu honetan, gainera, daukan dimentsioagatik Madrilen tramitatuko da.

“ ”

Zergatik nahi duten hemen eraiki? Hau jadanik tsunami bat delako. Burbuila bat da eta diru asko dago jokoan

Akaso horregatik geldoago joango da tramitazio hori?

Muñoz: Hori ez dakigu. Epe batzuk eman dizkigute eta esan digute gutxi gorabehera hurrengo urteko udaberrian publikatuko litzatekeela proiektua. Gero hasten da prozesu bat non hankak dardarka hasten zaizkizun, helegiteekin eta abar.

Galparsoro: Ez gara lehenengoak halako borroketan, eta eskerrak, baditugu eza-gunak eta laguntzak. Nafarroan Sustrai Erakuntza dago, aholkularitza juridikoa ematen duena. Baina eolikoak jarri nahi dituztenak ez daude geldi. Hemen ia bi urte daramatzate azterketak egiten, Texus Medioambiente enpresaren bidez, Asturiaskoak, beti kotxearekin gora eta behera.

Muñoz: Behin mendian paseatzen topo egin nuen haiekin eta hizketan aritu nintzen. Esan zidaten ingurumen inpaktu azterketa egiten ari direla eta horrek gu-txienez urtebeteko epea eskatzen duela, sasoi guztiak hartzeko. Gure susmoa da Taxusek ofizialki tramite hori bete behar





duela baina hasi baino lehenago badakitelera emaitza zein izango den, enpresak berak kontratatzen baitu.

Arano hainbat natur guneren tartean dago eta ondare arkeologikoa ere paregabea da. Helegiteak jartzeko nondik joko duzue?

Galparsoro: Hau korridore bat da, guk hemen hegazti paseak etengabe ikusten ditugu, eta ez usoenak bakarrik.

Muñoz: Gauza bat da ze ondare daukagun eta bestea ze babes figura duen. Parke naturalek edo hegaztientzako babes bereziko eremuek duten modukorik ez daukagu guk. Enpresatik esan digute ez kezkatzeko. Adibidez, legeak esaten badu dorreak megalitoetatik 500 metrora jarri behar direla, beraiek 700 metrora jarriko dituztela. Ze jatorrak... baina jarriko dituzte! Nik horrekin irakurketa bat egingen dut: biak batera existitu daitezkeela pentsatzen dute, mairubaratza bat eta handik metro batzuetara aerosorgailua.

Galparsoro: Alde batetik helegite tekni-

koak daude, ministerioek eta abar jartzen dituztenak, eta gero bigarren fase batean guretzat baliozkoagoak direnak etorriko dira, Aranzadik eta abar egin ditzaketanak. Baina ikerketa horiek oso garestiak dira eta guk ez daukagu dirurik.

Azpiegitura handi zentralizatuz harago, alternatibak aztertu dituzue Aranon?

Galparsoro: Horretan ari ginen gutxi batzuk, hau etorri zen arte. Nik pentsatzen dut herri honek badituela aukerak. Oso sakabanatuta gaude eta oso desberdinak gara, baina irakurketa bateratuak egin behar ditugu, zeren gu biok agian sintonian gaude, baina beste batzuk soilik ikusten dute argiaren faktura jaitsiko zaiela.

Muñoz: Gai sakona da hori eta nire ustez abiapuntutik gaizki dago goiko estamentuetatik sortzen bada. Burujabetza ez da soilik argindarra sortzea, kontsumoa ere jaitsi behar dugu, eta normala denez askoren egunerokotasunean ez dago horretaz hausnartzeko unerik: lanetik etxera

berandu, gero familiako gauzak, Reala-ren partidua... Horretaz ere baliatzen dira enpresa hauek, beraiek badute nahikoa denbora komeni zaien bezala aurkezteko. Gainera kuriozosa da, arrazoia beti da aldaketa klimatikoa, ez erregai fosilen bukaera. Kutsadurarekin eta isuriekin amaituko dela... baina nork sinesten du hori?

Biodibertsitatearen galerak ere klima aldaketa dakarrela gero eta ozenago diote adituek.

Muñoz: Naturatik deskonektaturik egon behar duzu hori ez ikusteko, eta zoritxarrez gaur egun jende asko dago deskonektatuta bizi dena, baita herri txikietan ere. Naturan dena dago konektatuta, gu barne. Puzzle batean bezala, pieza bat kendu eta pikutara. Okerrrena da hau ez dela gurea, baina tokatzen zaigu zaintzea helduko direnentzako.

Galparsoro: Ez da gurea, ez aranoarena ez orain bizi garen euskaldunena ere... Ondorengo belaunaldiena eta izadiarena da natura. ●

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK | PANTEOIAK
HILERRIAK | ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK | HARRI ZIZELKATZEA

M. 688 605 182 | T. 948 453 444
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com




Museoa



EUSKAL HERRIKO ZENTRAL EOLIKO HANDIENA URUMEAKO MENDIETAN

Arano eta Hernani inguruetan Repsol eta Endesa enpresek eraiki nahi dituzten makro-zentral eolikoek aurkako txosten kritiko mardula egin du Mikel Alvarez ekintzaile ekologista donostiarrak. Bere esanetan, "Euskal Herrian planteatzen den era horretako azpiegitura handiena" litzateke honakoa, eta herritar, talde zein elkarten artean gaia aztertzeke eta "alerta emateko" helburuz eginga da txostena. Zertzelada batzuk laburtuko ditugu segidan.

ENDESA ETA REPSOL

Alde batetik, Enigma Green Power sozietatearen "Ikatz Gane" proiektuak Endesa dauka atzean -ARGIAk maiatzean azaleratu zuen moduan- eta 205 metroko bost aerosorgailu eraiki nahi ditu Elduainen eta Hernanin, Pagoaga auzotik gora Azketa mendiraino doan mendilerroaren eta Adarramendiko magalen artean. Denera 33 MW-ko potentzia edukiko lukete.

Bestetik, FE Energy kontsultoraren bidez, Repsol enpresak 99 MW-ko potentziako proiektua du esku artean, Arano, Hernani, Goizueta eta Berastegiko udalerrietan, Mandoegitik hasi eta Adarraraino doan mendilerro luzean zehar. 165 metroko garaierako 22 aerosorgailu edo 205 metroko 15 aerosorgailu aurreikusten ditu proiektu honek eta Madrilen ari dira tramitatzen, duen dimentsioagatik eta bi erkidegori eragiten dielako (EAERI eta Nafarroari).

Nolanahi ere, Alvarezek txostenean dio zaila dela proiektatu dituzten konplexu eolikoek eta horiek eraikitzeke sarbideen kokapen zehatza identifikatzea, informazio gutxi dagoelako.

72 HEGAZTI ESPEZIE, 60.000 HEGALDI

Aerosorgailuek sortuko lituzketen kalte ekologiko posiblei buruzko datu ugari dakartza txostenak. Besteak beste, inpaktu bisuala eta akustikoa, lur malkartsuetan halako azpiegiturak ezartzeak dakarren aztarna, eta horrek flora eta faunari nola eragingo liokeen. Aranzadik egindako ikerketen arabera mendi magal ospel horietan mehatxaturiko landare espezie endemikoak bizi dira, baita bisoi europarra eta muturluze piriniarra bezalako ugaztunak ere.

Hegaztiei dagokienez, 2007an beste zentral eoliko bat jarri nahi zuen Eólicas Euskadiren (Iberdrola eta EEE) proiekturako egindako azterlanean, Mandoegi inguruan 72 hegazti espezieetako ia 60.000 hegaldi zenbatu ziren. Miru gorria, gabiraia, sugezale europarra eta beste harrapari batzuen migrazioak atzeman dira, baita ehiza-espezieena eta paseiformeena ere (negu-txirta, euli-txori grisa, amilots urdina...). Gainera, sai arrearen etzaleku bat dago mendiaren hego-ekialdean.

ESTAZIO MEGALITIKO GARRANTZITSUA

Onddi, Adarra eta Mandoegi mendien artean Euskal Herriko historiaurreko monumentu multzo garrantzitsuenetako bat kontserbatzen da. Hain justu, Leitzarandik ekialderantz ugaritzen dira mairubaratzak edo cromlechak deituriko zirkulu itxurako megalitoak. Aranon eta Goizuetan soilik, halako 74 katalogatu dira.

Txostenak azpimarratzen du "paisaia kultural" bat biltzen duela Urumeak, zeinean garai bateko lur komunalek edo *zilegimendiek* garrantzia berezia izan duten: "Mendi libreak ziren hauek", azaldu zion Luis Mari Zaldua adituak *Gipuzkoako Hitza*-ri.

Azken batean, "txosten hau egin da inpaktu larrien berri emateko, baina baita megaproiektuetan oinarrituriko trantsizio energetiko korporatiboari buruz funtsezkoak diren hainbat gai kritiko azaltzeko ere", dio Alvarezek.

205 m

HORI DA AEROSORGAILU
BAKOITZAREN GARAIERA. **120**
METRO ALTU ETA **6 METROKO**
DIAMETROA DUEN DORRE
METALIKOAZ GAIN, **170 METROKO**
DIAMETROKO ERROTOREA DUTE,
83,5 METROKO LUZERAKO
PALEKIN. ZIMENTUEK **23 METROKO**
DIAMETROA DUTE ETA **4,20**
METROKO LODIERAKO HORMIGOI
ARMATUZKO ZAPATA ZIRKULAR
BATEN BIDEZ EGITEN DIRA.



“Harrotasunaren eta lotsaren arteko gatazkan bizi naiz”

Artea eta zientzia elkarrengandik oso urrun egon daitezkeela dirudien arren, biak gustuko ditu Maider Mimi (Maider Triviño) zientzialari eta artistak (Aretxabaleta, Gipuzkoa, 1997). Ikerkuntzan, antzerkian, musikan, bakarrizketetan, poesian eta beste gauza askotan dabil. Horien bidez, sexualitatearen, autismoaren eta zuzenean eragiten dioten beste gai batzuen inguruan gogoetatzen du.

  OLAIA L. GARAIALDE



Maider Triviño

Autista naiz” edo “autismoa daukat”. Biak erabiltzen ditu Triviñok, baina bigarrena nahiago du: “Nire izaeraren parte da, baina ez osoa. Hau da nire ezauzgarri bat, nire osotasuna izan beharrean”. Nabarmendu du autismoak zientziarekiko eta artearekiko dituen interesak piztu eta “areagotu” dituela, eta gauza “mordoa” egitera eramanez: “Kontziente naiz nire garunak jende gehienak ez dituen gaitasun batzuk dituela; hala nola kontzentratzeko gaitasuna, algoritmo jakin batzuk erakitzeko ahalmena...”. Autismorik izan ezean, “normalsua” izango litzatekeela dio: “Ez nuke sentituko sentitzen dudan guztia, eta ezingo nuke jendea lagundu. Autismoak hori eman dit, eta polita da”.

Arteak eta zientziak bi mundu kontrajarri diruditen arren, Triviñorentzat lotura “handia” dago euren artean. Zientzia arloan, epilepsia antzemateari eta adimen artifizialari loturiko proiektu batean dabil: “Nire garuna pila bat

“Zati autista gordetzea zama handia da, gure izaeraren parte bat gordetzen ari garelako”

aktibatzen da”. Alde artistikoa aldiz, desinhibitzeko, beharrak plazaratzeko eta hausnartzeko erabiltzen du; hala nola musikan, poesian eta antzerkian aritzen da. Komediak “pila bat” lagundu dio depresioa “hobeto” eramaten: “Pandemian uste dut jende mordotek izan zuela depresioa. Birus batek baino gehiago suntsitu gaitzake depresioak. Bizirik zaude, baina hil zaitezkeen sentsazioa daukazu”.

Hala ere, ez da egun batetik bestera egindako bidea, “poliki-poliki” egindako prozesu “luzea” izan da: “Lehen oso lotsatia nintzen, autoestimua oso baxua

neukan, egun ere bai, eta ez nintzen gai jendaurrean berba egiteko. Neure burua gainditu behar izan dut, eta beldur eszenikoa kendu”. Taularatzten dituen gaiekin identifikatuta sentitzen direnak mikrofonoa hartzerantz animatzen ditu: “Euskal Herrian, normalean, oholtzan gehienak gizonak izaten dira. Errepresentazioa falta da. Beharrezkoa ikusten dut hori aldatzea”.

Bakarrizketak jendea dibertitzeko eta zuzenean eragiten dioten eta jende gutxi aipatzen dituen gaien inguruan hausnartzeko tresnatzat ditu: “Txistek egiten ditut, baina aldi berean zeozer aldarrikatzen ari naiz”. Horien artean autismoaren inguruan sorturiko mitotez barre egiten du. “Askotan entzun da txertoek autismoa eragiten dutela. Nik sarritan esaten dudana gauza bat da nahi ditudan txerto denak jartzen ahal ditudala ez daukadalako gaitzeko ezer”, kontatu du barrezka. Horrez gain, sexualitateaz, LGTBIAQ+ kolektiboaz, feminismoaz eta euskal identitateaz ere mintzo ohi da.

BAZTERKERIA ETA INDARKERIA

Literaturan ere murgilduta dago Triviño, eta aurrerago publikatu nahi dituen fantasiatzko zenbait libururatu ditu esku artean. Momentuz, *Ezina, ekinez egina* liburua kale-ratzean dago: "Uste dut autismoa dutenek behar dutela, eta autismoa gorrotatzen dutenek ere bai. Zoritxarrez, azken horiek ez dute irakurriko". Autismoaren inguruko liburua bat da, eta bere esperientzia pertsonala eta orain arte ikertutako gauzen informazioa jasotzen du liburua: "Harrotasunaren eta lotsaren arteko gatazkan bizi naiz. Autismoak gauza onak eman dizkidalako, baina txarrak ere bai".

Gaineratu du "zama handia" izan dela, beste pertsona batzuek baztertu eta gaizki tratatu dutelako: "Jendeak orokorrean aldatzeko eta autismoari loturiko gauzak ez egiteko eskatzen digu. Zergatik aldatu behar dut nire izaera? Naizen moduan egon nahi dut jendearekin". Zeharka zein zuzenean esaten diote plan batzuetan ez parte hartzeko: "Batzuetan esaten didate ez etortzeko ez dakit nork ez duelako

nahi. Horrek boterea ematen dio gorroto nauenari, aukera duelako erabakitze noiz egon naitekeen eta noiz ez eta zer egin dezakedan".

Horrek eragiten du zenbait momentutan jokabidea edo izaera aldatu eta autismoarekin lotzen diren zenbait gauza ez egitea edo ezkutitzea. Emakumeen edota emakumetzat dituzten pertsonen kasuan exijentzia "handiagoa" de-nez, areagotu egiten da hori: "Zati autista gordetzea zama handia da, gure izaeraren parte bat gordetzen ari garelako".

Horrez gain, indarkeria sexuala pairatzeko probabilitatea handitzen dela dio: "Esango nuke denok jaso ditugula sexu erasoak. Normalean irudikatzen dugu pertsona ezezagun batek harrapatu eta indarkeria fisikoz erasotzen gaituela. Autismoa daukagunon kasuan, konfiantzazko pertsona edo ezagun bat izaten da, eta trikimailuak erabiltzen ditu burua nahasteko eta konbentzitzeko. Manipulazio psikologikoa sartzen da tartean. Legearen arabera, hori ez da bortxaketa, baina bai, bada, argi eta garbi". ●



GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Garuna. Neurodibergentzia garunarekin lotuta dago zuzenean; neuronekin eta neurotransmisoreekin. Ni naiz naizen modukoa neure garunarengatik, eta bakoitza da den modukoa garunarengatik. Gainerako organoek bizi funtzioa egiten dute, baina gure pertsonalitatea garunean dago".



ASTEKARIAN ATAL BERRIA



Nola zahartu den liburua

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Liburutegiko sarreran lehen lerroan egon ohi diren *Berrienak* bildumatik pixka bat aldendu eta barrurago geratzen diren eta nobedade izateari aspaldi utzi zioten liburuz betetako apalategietan murgiltzen naiz tarteka, altxorren bat non bilatuko. Ordea, izenburuak ezagunak eginagatik ere, "klasikoren" bat irakurtzeko gogoia bai, baina zeri heldu asmatu ezinda ibilia naiz maiz. Neure modukoentzako atala astekarirako martxan dela jakiteak poztu dit gaur eguna.

Gerotik gerora izena du hilean behin Kulturako bi orriko bat beteko duen atalak, eta oinarria da liburu "klasikoen" berrirakurketak egitea. "Ez klasiko gisa hain erraz katalogatuak direnak, baizik eta liburu zaharrak

berrartzeko ariketa izango da, atzera begiradatik galdu gabe, gaurko egunean berrirakurtzea eta gogoetaztea", esan dit atalaren koordinatzaile Gorka Peñagarikanok.

EUSKARAZKO LITERATURA ETA LANGILE MUGIMENDUA


Bi alor horiek landuko dituzte Gorka Bereziartuaren eta Paul Beitiaren artean, txandaka; lehenak euskarazko literatura xehatuko du, eta bigarrenak langile mugimenduen historian mugari izan diren libururak. Zein, zehazki? Bada zerrenda nahiko behin-behinekoa omen dute eta ez dituzte eskuak gehiegi busti nahi izan, baina ziurtasunez dakiguna da zenbaki honetan kaleratuko den aldizkarian Gorka Bereziartua Axu-

larren *Gero* liburuz ari dela, eta Paul Beitiak *Zer egin?*, iraultzaile errusiar askoren (tarlean Lenin) inspirazio izan zen Nikolai Txernyxevski-ren nobela aukeratu duela lehen kolperako.

Garaian kokatuko dute, lehendabizi, liburua, testuingurua emanda argitalpen uneari, une historikoari, egileari... Eta liburu klasiko oro irakurtzen denean egiten den galderari erantzutea da asmoa: zer nolako baliozkotasuna du gaur egun liburu honen edukiak? Esan nahi baita, nola zahartu da liburua?

"Azterketa eta analisisan egongo da mamia", azaldu digu koordinatzaileak eta "dimentsio politikoa hartu lezake artikulurok eta interesgarria izango da irakurlearentzat", gehitu du. ●

Ginekologiaren ama esklaboak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Washington (AEB), 1807. AEBetako Konstituzioak esklaboen trafiko transatlantikoa debekatu zuen. Horrek ez du esan nahi esklabotza abolitu zenik, esklaboen iturri nagusia eten zela baizik. Hala, emakumezko esklaboak bihurtu ziren esklabo berriak "ekoizteko" bide bakarra.

Horregatik, 1845ean, Alabaman, James Marion Sims medikuak Anarcha izeneko esklaboa tratatu zuenean, jabeak hala eskatuta, ez zuen emakumearen ongizateak bultzatuta egin, ekoizpen baliabide funtsezkoa zaintzeko baizik. Anarchak 17 urte zituen eta 72 orduko erditzearen ondoren, gaur egun fistula besikobaginala deritzon arazoa garatu zuen, besteak beste, inkontinentzia eta min kronikoak eragiten dituena. Sims doktorea fistula josten saiatu zen, baina ez zuen emaitza onik lortu.

Handik gutxira Betsy izeneko beste esklabo nerabe bat eraman zioten arazo berarekin, eta, aurrerago, Lucy izeneko 18 urteko gaztea. Kasuak "sendaezinak" zirela esan eta ez zituen tratatu. Simsek berak idatzi zuen "emakumeen pelbisaren organoak ikertzea gorroto" zuela. Baina jarrera guztiz aldatuko zuen emakume libre txuri bat, Merrill anderea, kontsultara arazo berarekin hurbildu zitzaionean. Esklaboak tratatzea erabaki zuen orduan. Edo, hobe esanda, esklaboekin esperimintatzea erabaki zuen, gero emakume txuriak tratatu ahal izateko, Deirdre Cooper Owens historialariak *Medical Bondage*:



SMITHSONIAN MUSEUM

Race, Gender, and the Origins of American Gynecology (Mediku esklabotza: Arraza, Generoa eta Amerikako ginekologiaren jatorria) lanean azaldu bezala.

Ugalketa organoak aztertzeke posizio berri bat asmatu zuen, ebakuntza egiteko berariazko tresneria ere bai, eta hamabi pazienterentzako lekua zeukan ospitale modukoa prestatu zuen Alabaman bertan. Anarcha, Betsy, Lucy eta beste esklabo batzuekin esperimintatzen hasi zen beste hainbat medikuren laguntzarekin. Baina emaitza onik lortzen ez zuenez, gainerako medikuek interesa galdu eta Sims bakarrik utzi zuten. Orduan doktoreak paziente-esklaboak trebatzea erabaki zuen, elkarrri ebakuntzak egiteko –eta ohean el-

karri eusteko, ebakuntzak anestesiarik gabe egiten baitzituzten-. Hala, azkenean, saiakera askoren ondoren –Anarchari 30 ebakuntzatik gora egin zizkieten-, arrakasta izan zuen.

Lorpen hari esker, James Marion Sims ginekologiaren aitatzat jo izan da luzaroan. 2018an Black Youth Project 100 ekimenak New Yorken zegoen Simsen eskultura erretira zezaten lortu zuen. Eta handik gutxira Montgomeryn (Alabama), Simsek bere esperimentuak egin zituen ospitaletik gertu, Anarcha, Betsy eta Lucyren eskultura bat jarri zuten, Simsi ginekologiaren aita titulua kentzeko eta emakume esklabo haiek ginekologiaren ama izendatzeko ahaleginean. ●



ALMARE

Afrikaren erromanizazio matematikoa

Berlingo Unibertsitate Libreko eta Zuse institutuko diziplinarteko ikerlari talde batek eredu matematiko konplexua garatu du Afrika iparraldean erromanizazioa nola hedatu zen hobeto ulertzeko. *Plos One* aldizkarian argitaratutako ikerlanaren arabera, eredu osatzeko galtzada erromatarren arrastoei buruzko datuetan oinarritu dira, eta Afrika Prokotsularra

probintziaren erromanizazioa aztertu dute nagusiki, hau da, egungo Tunisiaren erromanizazioa. Azpiegitura horien hedapenaren bidez, erromatarrek kulturalki, sozialki, militarki eta ekonomikoki izan zuten eragina aztertzea dute helburu. Ñabardurak ñabardura, Afrika iparraldeko erromanizazioa "epidemia baten moduan" hedatu zela adierazi dute. ●

SASOITU

SUAREN KOLOREA DUEN
AZAROA, HAZIEN AROA

AMAIA DIAZ DE
MONASTERIOGUREN OSINAGA
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

SASOIKO ERREZETAK

Amaia Diaz de Monasteriogurenek **sasoiko errezetak** proposatuko ditu www.argia.eus-en, bere artikuluan. Azarorako lau errezeta hauek azaldu ditu: berakatz zopa, piñutela perretxikoak labean, sagarra baporean intxaur eta mahaspasekin eta kalabaza krema pipa xigortuekin.

Zer da zuretzat sukaldea? Niretzat, suaren tokia, sua dagoen aldea. Etxearen bihotza da, lapikokoa mimoz eta maitasunez prestatzeko lekua. Gero, mahai inguruan jateko, dastatzeko, partekatze eta disfrutatzeko tokia. Sasoiak jateko sukaldera sartuko gara.

Garai honetan, azaroko arratsalde ilunetan, sukaldean kafe bat prestatzeko ohitura dut, amonak egiten zuen modura, atxikoria, kanela eta azukrearekin. Berak kontatzen zizkidan istoriak gogorazten ditut. "Sukaldeko leihoan eta atarian kalabaza piztuak jartzen zituzten garaiak ziren haiek".

Leihotik, intxaurrondoa ikusten dut: azken asteetan haize bortitzek eta ekaitzek astindu dute. Hain indartsu dago lurrari itsatsita, haizeari eta euriari ez diela beldurrik. Euri, ekaitz eta haize bortitzen ostean, ahulduta eta hilda zeuden adarrak puskatu zaizkio. Hosto gutxi ditu aldean, biluzik geratzeko ez zaio ezer falta. Neguko iluntasun eta bakardareari ez dio beldurrik.

Udazkenean, nire emozioak dantzan daude, tristuran eta melankolian ez jausteko, eta intxaurrondoak egin duen bezala, ekaitza datorrenarako, inguruan mugimendu eta borrokarako gogo handia dagoenean, "Sustatzeko elikadura" praktikatzan dut.

Oso garrantziatsua da zer jaten dugun, nola osatzen ditugun platerak. Ez ahaztu barazki jatorriko proteinak zereal eta haziakin nahastea (arroza, artoa, artatxikia, garia...).

Prestatu platerak tuberkuluekin: azenarioak, patatak, batatak, boniatoa, erremolatxa, arbia, tipulak, baratxuria, besteak beste. Elikadura plana bizitzaz eta kolorez bete, barazki eta fruta koloretsuekin.

UDAZKENEKO BARAZKI ETA FRUTAK

PORRUA. Garai honetarako, lagungarria da artikulazio eta hezurretarako, erreuma, artrosis eta azido urikoa dutenentzat. Potasio asko eta sodio gutxi ditu eta alkalinizatzailea eta diuretiko da.

Porruaren berdea aprobetxatu, salda eta lapikokoei zaporea emateko erabiliko ditugu. Juliana eran fin-fin moztu eta zartaginean salteatuta platerak osatzeko, apaintzeko, guarnizio bezala gozo daude.

KIWIA. Zuntz iturri ona da, idorreria duten pertsonentzat aproposa. Gainera, propietate gaztetzailak ditu, ahalmen antioxidatzaileari esker. Ez du sodiorik eta azido folikoaren iturri ona da.

Bere barruan altxor bat gordetzen du: haziak, omega3-an aberatsak direnak, bihotzerako eta burmuinerako koiperik osasuntsuetarikoak.



SAGARRA. Hesteen laguna da, oinarritzkoa, gomendioetan beti dago presente. Gordina aldean eramateko, jateko erosoa da.

Orekatua eta elikagarria, sagarra fruten erreginatzat jo daiteke. Bere bertute terapeutikoak oso ugariak dira.

Gordina ensaladan, konpotan eta erreta erabiliko ditugu. Gogoratu, fruta hobe jatea eta murtxikatzea, edatea baino.

MADARIA. Samur eta heldua dagoenean erraz eta azkar liseritzen den fruta da. Digestio zailak eta astunak dituztenek, egosita har dezakete. Urdailaren laguna da. Bere formak urdailaren itxura dauka.

Bere urtsutasun handiak freskagarri bihurtzen du, egarria baretzeko baliagarria. Adineko eta haurrentzat bereziki gomendagarria da.

PERRETXIKUAK. Ur asko dute, zuntzetan aberatsak dira eta kalitatezko proteinak dituzte. Bitamina eta mineralen aberatsak dira. Digestioan zailtasunak dituztenek noiz eta zerekin jaten dituzten zaindu behar dute.

Eta gu? Gure gorputzak zer behar du neguan? Hezurak indartzea eta beldurrrak baretzea. Horretarako neguko elikadura eta zaintzarako tresnak prestatuko ditugu hurrengo artikuluan. ●

A ZE FAUNA!

PASE GARAIKO PROTAGONISTA

USAPAL EUROPARRA

*(Streptopelia turtur)***TALDEA:** Ornoduna/Hegaztia.**NEURRIA:** Mokotik-isatsera: 25-28 cm.
Hego-luzera: 45-50 cm.**NON BIZI DA?** Landazabaletik gertu dauden baso irekietan.**ZER JATEN DU?** Haziak eta belar-puntak.**BABES MAILA:** Europa mailan babestua.**NEREA PAGALDAI AGIRIANO**
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA

*Ürx'aphal bat badüü
herrian trixterik,
Nigarrez ari düzü
kaloian barnetik,
Bere lagün maitiaz
beit'izan ütirik:
Kuntsola ezazie,
ziek adixkidik.*

Etxahunek bere bertsoan bezala, literatura neska gazte eta ederrari deitzeko erabili izan da ürx'aphal, usapal edo ttorttola. Fintasun eta liraintasunarekin lotu izan da beti eta euskaldunontzat maitea da. Bere kantuak emango dio agian izena "tur-tur" egiten duen hegazti honi: tortola, ttorttolia, usa-tortola edo uso txikia, izen ofiziala, aldiz, usapal europarra du.

Gorputz luzea du, fina eta arina. Bularraldeko lumak grisak dira baina arrosa puntua ere badute eta bizkarraldekoek, aldiz, laranja eta beltz kolorea dute. Isatsaren ertza zuria du, honen gainean marra beltz bat eta gorago gris kolorea gailentzen da, urdin puntu bat ere baduena, hegalka zabaltean ere erakusten duen kolorea. Hain



STEPHAN SPRINZ / CC-A-4.0-1

elegantea, lepokoa ere baduena, marra zuri eta beltzez osatutakoa. Laranja koloreko begi inguruan gorria ere badu. Horrelakoa da tortola, koloretsua bezain ederra. Hau izango ote da euskaldunon bihotzetara heldu izanaren arrazoia?

Europa osoan zehar umatzen da usapala, baserri soroak hurbil dituzten baso irekiak ditu gustuko: belar-puntak, haziak eta aleak jateko. Udazkenean, irailean hasten du Afrikarantz bidea, Sahara hegoaldera joango da negua pasatzera. Hegazti hau arrunta da gurean, gehienbat pasean ikusten dugulako. Hain da ezaguna, pase garaian erreferentea dela: beste hegaztiak "tortola denboran" edo "tortola ostean" pasatzen dira.

Zorritzarrez, tortolaren populazioak gainbeheran daude eta horrek espeziea mundu mailan zein Europan "zaugarri" eta Euskal Autonomi Erkidegoan "galzorian" sailkatzea ekarri du, horren gainbehera gelditu edo gutxitu nahian. Gainbeheraren arrazoiak hainbat dira, umatze lurretan, migrazioan zein negu-pasarako eremuetan hainbat mehatxu baitituzte. Alde batetik, habitataren suntsipenak eta

labore tradizionalen aldaketen ondorioz, heskaiak, ibarbakoak eta abar desagertzen ari dira eta tortolak behar duen paisaiaren mosaikoa galtzen da. Gainera, nekazaritza intentsiboa geroz eta zabalduago dago eta nekazaritza mota honek pestizida eta herbizida ugari erabili ohi ditu. Horrek usapalaren elikagaia diren baina ekoizleak ez diren landare espezieak murriztea dakar, eta gutxi ez balitz, pestizidak hegaztientzat toxikoak dira, haien osasunean eragin kaltegarriak edo heriotza eragiten dituzte. Bestetik, tortolak migratzen ari direnean ehizatze ohitura oso zabaldua da, baina populazioen gainbehera dela-eta, oraingoz tortola ehizatzea debekatuta dago. Azkenik, Afrikara negua pasatzera iristean, bertako gehiegizko artzaintzak eragin negatiboa dauka.

Espeziearen arazoa mundu mailakoa izan arren, hain maitea dugun ürx'aphala babesteko, gurean gertatzen ari diren habitataren suntsipena zein pestizida eta herbiziden gehiegizko erabilpena gutxitu beharko genituzke, ekintza lokaletan hasten baita aldaketa. Ekintza lokalik gabe ez dago inpaktu globalik. ●

SAGASTIZALEENTZAKO JAKINARAZPENA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Euskal Herrira 2018an iritsi zen. Bertakotu eta euskaldundu den migratubat gehiago. Ongi etorri. Gutxi batzuk hasieran, izurritea 2023rako. Asiatik datoz, Txina, Korea eta Japoniatik. Lehengo mendearen amaieran AEBak inbaditu zituen; 2004n Europara jo zuen, Suitzan hartu zuen lur. Han paperak lortu eta batera eta bestera, harat-honat bizkor hedatzen ari da. Suitzar pasaporteak Europa osoko atek zabaltzea ekarri zion. Orain, Europako immigrazioaren aurkako politika bortitzak ez du berehalakoan geratuko, eta inbasioa ia-ia sarkinkeria bihurtu da, izan ere etxe barruetaraino sartu zaigu eta etxeetako gaur egungo tokirik garrantzitsuenean, dutxa eta komuneko ispiuaren artean dabilkigu.

Zimitz kirastun gorbeltza da (*Halyomorfa halys*). Lehendik ezagutzen ditugu landareetako zimitzak eta, batez ere, ohaide dugun eta gure odola janez bizi den ohe-zimitza (*Cimex lectularius*). Gaur egun etxeak izurritzen dituzten ohe-zimitz horiek jatorriz, duela urte asko, kobazuloetan bizi ziren saguzarren odolez elikatzen zen espezie batetik datoz. Jendea haitzuloetan bizitzen zenean, ohe-zimitza haien odola xurgatuz elikatzen hasi zen. Geroago, kobazuloak utzi eta nekazaritza zibilizazioak garatzen hasi zirenean ohe-zimitzak be-

raiekin zabaldu ziren. Ordotik gure ohea non, ohe-zimitza han. Hain gurea izanik, zimitz izenez gain "imitza", "imintxa", "tximitza" eta "purnas" behintzat baditu; gehienak bere koskadizoa sentitzean atximurra, zimikoa edo amurtxia gogorarazten duela azaltzen dutenak.

Zimitz kirastun gorbeltza izurritea da gurean azken urte hauetan. Urte landareen hosto, kimu, adar, lore fruitu eta abarretatik janez igarotzen du. Ziztatu eta izerdia zurruputzen du kalte nabarmenak eraginez. 100 espezie baino gehiagori erasotzen dio, tartean mertxikari (*Prunus persica*), udareari (*Pyrus communis*), lekari (*Phaseolus vulgaris*), sojari (*Glycine max*), gereziari (*Prunus cerasus*) eta mugurdiari (*Rubus idaeus*); eta AEBetan sagastietako (*Malus domestica*) izurri handia bihurtu da. Kontuan hartzen ahal dute hemengo sagarzaileek. Azaleko orbanak eta zuloak eginez hostoak zimeltzen ditu, landareen hazkundera eragozten du eta gaztea bada hiltzeraino eraman dezake, fruitu aleak sortzea galaraz dezake edo erorarazi. Zabaltzen duen kirats nabarmena arerioak uxatzeko erabiltzen du. Landareen kalteak identifikatu ezinik bazabiltza, jarri ontzi batean xaboi-ura; erakarri egiten ditu eta bertan itoko dira. Kiratsa eta kirastuna xaboiarekin garbitu. Berak

baldin badira, hona erremedioak. Ozpina eta bikarbonatoa: nahasi litro bete urari erdi bat ozpin eta erantsi koilarakada bat bikarbonato, ondo nahasi eta ihintzatu landarea, behin eta berriz desagertu arte. Itze eta baratxuri ura: litro bete uretan jarri 20 gramo iltze (*Syzygium aromaticum*) eta 3-4 baratxuri atal (*Allium sativum*), irakin ordu laurden batez, hoztu eta ihintzatu landareak; ur hori ontzietan babesgarri jar daiteke landareen inguruan. Onena aurrea hartzea; landatu uxatzen duten landareak. Kirastuna izanik, usain gozoak ez ditu gustuko; jarri horiek zabaltzen dituztenak: mendak (*Mentha spp.*), albaka (*Ocimum basilicum*), izpilikua (*Lavandula spp.*), erromeroa (*Rosmarinus officinalis*), ezkaia (*Thymus communis*), oreganoa (*Origanum vulgare*) eta asentsio-belarra (*Artemisa absinthium*).

Urri aldera eguna dezente moztu eta giro hotzak hasten direnean, etxeetan babesteko sasoi du. Leihotik sartuko da eta errezelean izkutatu da, edo sofa gozoaren zirrikituren batean. Etorri berria izanik, negua igarotzeko etxe barru beroak baino toki hoberik ez du topatu. Ez da, ez, pikupean hazitakoa.

Eta gogoan izan Zuberoako esamoldea, ezin eramanezko ume deserosoari: hau da hau ume purnaxa! ●



HECTONICHUS / CCA-5A-4-0-1



Zigilu hauen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak. Jakinduria eta lana daude.

HEMEN DAGO NAFARROA



ReynoGourmet.com

ARTOTXIKI

ARTOBELTZA, ARTATXIKIA, KINOA ETA PRODUKTU BEGANOAK LIZARRALDEAN



GARAZI ZABALETA



Umetatik baserrian bizi izan dira Gillen eta Bittor Abrego Arlegi anaiak, Lizarraldean, Iguzkitza herrian. Familia abeltzaina izan da haiena baina baserria eta lursailak haien esku gelditu zirenean, proiektuari buelta bat ematea erabaki zuten bi anaiek: “Lur zatia eta baserria genituen, hutsetik has gintezkeen, eta argi genuen abereekin ez genuela ezer nahi. Orduan, zer egin?”. Elikadura burujabetzaren bidean egin nahi zuten lan, industriatik at, eta langile klaseari osasuntsu jaten emateko. 2017an nekazaritza proiektua jarri zuten abian, eredu birsortzailean. Artobeltza, artatxikia, txitxirioak, dilistak, kinoa eta osagai horiekin prestatutako produktu beganoak ekoizten dituzte.

“LURRA DEBALDE JASO DUGU BAINA OPARIA HERRIARI ITZULTZEKO DA”

Nekazaritza birsortzailea etiketa bat baino, bizia ulertzeko modu bat dela aldarrikatu du Abregok: “Erregai fosile-

kiko menpekotasuna kendu edo gutxitu nahi dugu, eta lurzoruan karbono dioxidoa finkatu. Azkenean, lur zati hau guk debalde jaso dugu, baina ez da aprobetxatzeko eta kutsatzeko. Zaindu beharra dugu, eta saiatu opari hori herriari, ondorengoei itzultzen”. Filosofia horrekin ari dira lanean anaiak, ekoizpen ekologikoan, txikian, eta prozesu osoa, lurretik kontsumitzailearen platereraino, haien esku hartuta.


ARTOBELTZA, ARTATXIKIA, GARI MOTAK, TXITXIRIOAK, DILISTAK...

Euskal Herriko lursailetan hain ohikoak ez diren zenbait produktu ekoizten dituzte Iguzkitzan Abrego anaiek, eta zuzeneko salmenta egiten dute batik bat. “Artobeltza ez da hain ongi atera, apustu arriskutsua izan zen eta ikusi dugu hemengo lurzoruetarako ez dela onena, klima ozeanikoa behar du. Beraz, gutxiago ekoiztiko dugu aurrerantzean, baina txitxirio, dilista eta kinoa oso ongi doaz”. Bertako produktuen kasuan, barietate autoktonoak darabiltzate hasieratik.

JAKI BEGANOAK ERALDATZEN

Glutenik gabeko produktuak ekoizten dituzte Artotxikin, eta haien osagaiekin produktu beganoak ere egiten dituzte garai bateko ukuiluan muntatu duten eraldaketa gunean: “Familian glutenarekin arazoa duten kideak baditugu, eta ni orain begetarianoa izanik, bide horretatik jotzea pentsatu genuen”. Harrizko errotan irina egiten dute eta eraldaketa gunean *snack*-ak eta hamburgesa eta txistorra beganoak. “Gazta beganoak egiten hasteko asmoa dugu. Izan ere, elikadura-baloreei garrantzia handia ematen diegu: zuntza badugu, olioia ere bai, proteina lortzen ari gara... fermentoak falta zaizkigu”, adierazi du.

Urtebete daramate bi ekoizleek haien produktuak elaboratzen eta azoketan zuzenean saltzen, eta momentuz, erantzunarekin oso pozik agertu dira. Hurbileko dendetan ere saltzen dituzte eta baserrian bisitak ere hartzen dituzte, nekazaritza birsortzailea eta eraldaketa prozesua jendearengana hurbiltzeko. ●



Sareko, gure elikagai ekologikoen bilatzailea.

ekolurra.eus



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euzkadi

Babesleak:

Euskadi, auzolana



Europar Batasunak
kofinantzatuta

PEDRO AXULAR

'GERO'

Iraganeko geroaldia

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Mintza gaitezen klarki, itzulingururik gabe, esan beharrekoak esateko gerotik gerora ibili gabetanik: jolas hau, euskaraz letrak juntatzean datzana, Axularrek pasatu zuen. Kasik jolasa asmatu bezain laster gainera, halako moldez non *Gero*-ren orrialde gehienetan ematen baitu egilea dabilela, nola ibiltzen diren gaur egungo nerabe horiek, ezagunegi zaien bideo-joko bateko pantailan jira-biran, zuzen-zuzen helbururantz lehiatu beharrean. Txilinbuelta geroz eta zailagoak entseatzen ditu Axularrek ere, arrisku-salto sintaktikoak bata bestearen atzetik kateatzen, txirikorda lexiko konplikatua erraz ateratzen zaizkiola erakusten eta, horri guztiari gutxi iritzita, hitzez hitz landutako arabesko horretan txertatzen goiasmo handiko erreferentziak, nola diren Aristoteles, Plutarco edo Plinioren aipuak, besteak beste.

Uf. Eta ARGIAkoek liburu honi buruzkoak bi orrialdetan errenditzeko eskatu didate. Bi orrialde, alajaina. Gauzak tamainan egitearen aldekoa da Axular –“Ediren duzu ezta, jan ezazu, bada, neurritz, asko duzun bezainbertze, eta ez gehiago, aseegirik okha eztagizun, ahotik bihur eztezazun”–, eta horrekin kontsolatu behar-

ko dugu. Gainera, maisua ere sentitu zen uneren batean gainditu samar –“Baina, zertako sartzen naiz ni itsas hondargabe hunetan?”–, eta hemen haren aldean traste proportzionalki askoz txikiagoa montatu behar dugunez, ezin hasiko gara kexadurak eta hatsbeherapenak papereratzen.

Gero-ri buruzko artikulua hau, beraz, bi partetan: lehenbizikoan ematen da aditzera zenbat kalte egiten duen Axularren ur sakonetan gehiegi murgiltzeak, beste egitekoen gerorako uzteak. Bigarrenetan gidatzen da, eta aitzinatzen, liburu hau gaur egungo bizimoduan usatu nahi duen irakurtzailea.

I

Euskal literaturaren *magnum opus* hau eskuetan hartzen duenak ongi eginen du koaderno eta boligrafoa ere aldamenean edukitzen. Era horretan, liburuko esaldien josturarekin liluraturik geratzen delarik, haiek kopiatu ahalko baititu, haiek bere eskuz izkiriatu, eta manera horretan, une batez sentituko du bera dela, irakurtzailea alegia, *Gero* irakurtzen ez, baina idazten ari dena; bera dela euskal letren jenio eta figura erabateko hau; bera dela saio honen egile, Sarako erretore Pedro Axular berbera.

Irakurtzaile partikular honen kasuan, ordea, gutxi irauin zuen fantasiak, deus ez galdu beharrez koadernoan liburu osoa esaldiz esaldi kopiatzen hasi baitzen, hitzez hitz Moleskinerat bihurtzen, eta hain nekez eta hainbat gostarik trabailatzen zen, ezen momentu batetik aurrera estrategiaz aldatzea erabaki baitzuen. Maisulanaren eskuzko kopia berri bat zein gauza ero eta banoa zen jabeturik, liburuko pasarteak etxeko egongelan ahoz deklamatzera igaro zen. Hala dio koadernoan jasotako azken oharra: “Berdin zait zertaz ari den: orrialde hauek errezeitzea ahotik diamanteak zurrustan isurtzea bezalakoa da”.

Ez dakit etxekoak iritzi berekoak ote diren, hala ere. Nik uste desenkusak eta eskapatzeko bideak bazterturik, luzamenduak oro aienaturik, ez dutela beste ezer desio, ez bada testu hau behingoz buka dezadan, behin betirako bidal dezadan, horrela bakarrik izanen bainaiz libre, azkenik, agindutako zeregin domestikoen betetzeko. Entzuten ditut goraki adierazten, garbigailu hori ez dela bakarrik beteko, ez dela bere kabuz bueltaka hasiko. Eta zentrifugazionea amaitzen delarik, diren arroparik garbienak ere behar baitira zintzilikatu, behar baitira

eguzkitan lehortu eta plantxatu, ez da on, ez eta bidezko, egiteko horiek egunetik biharrera, presentetik etorkizunera eta gerotik gerora luzatzea.

Banoala, alegia, arropa zikinareki-koak egitera, eta bueltan segituko di-zuet gauzak kontatzen.

II

Bueno, ba hemen naiz, latsagian burutu beharrekoak buruturik. Eta seinalatu beharrean naiz badirela zenbait uste ustel, zenbait gerondoko fruitu pozoi-tsu, zenbait gezur eta falso testimonio, belaunaldiz belaunaldi irakurtzaileak uxatu dituztenak eta Axularren liburu-tik erabat ohildu, halako moldez non gaurko euskaldun askok ere –“letra gabeko aisia” soberan maite dutenak, inondik ere–, uste baitute ezen liburu zahar eta zaila dela *Gero*, erretolika eliz-tar aspergarria, giristino ilunek soilik leitu dezaketen tostoia.

Ez zen iritzi berekoa hemengo poeta gorri guztien aitzindaria, Gabriel Aresti, zeinak Axularren amorez *Zuzenbide debekatua*-n izkiriatutako hitzez gain, *Gero*-tik hartutako egiturak ere usatu baitzituen, eguneratu baitzituen eta haien bitartez euskarazko poesiaren gailurrak ediren. Honela dio, adibidez, Axularrek: “Badirudi hargatik eztuela nahi izatu Jainkoak dagoen behin ere itsasoa geldirik; baina nahi du *ibil dadin, higi dadin, marea dadin*”. Eta honela berriz, Arestik, *Gizonaren ahoa*-n: “Baina ez zazue, / baina ez zazue, / baina

ez zazue, / ez zazue tapa / gizonaren ahoa. / *Hitzaz / balia dadin, / hitzaz / zerbitza dadin*”. Akaso bilbotarrak susmatzen zuen –T.S. Elioten eskutik, inondik ere–, literatura futuroa kontenturik dagoela literatura pasatuan, eta nik behintzat, berarekin batera, *Gero*-n ez dut galdutako idaztankera baten aspaldiko xarmarik bilatzen, ezpada biharko hitzenezako zorrotzarria kausitzen, jakinik, hori bai, labanaren zorrotza ez dela zertan jarri haren distiraren kontrakarrean.

Distira horren itsugarria liburu honetako esaldien gaurkotasunean ere xerka beza irakurtzaileak, edozertarako erabil bailiteke Axular: Espainiako errege emerituari buruz mintzatzeko –“Oho in bat, jokari bat, arnegari bat, putaner bat, gaixto da”–; historia-ko gobernurik progresistenari buruz aritzeko –“kheinatzen dira, eta ez-tute aurthikitzen; destatzen dira, eta ez-tute desarratzen. Erraiten dute «eginen dut», eta ez-tute behin ere egiten. Hala daudela, denbora guztia iragaiten zaie, eta berak ere iragaiten, finatzen eta akhatzen dira”–; *overthinking*-aren arriskuez ohartarazteko –“egiten duzu zeure baithan barrena mila pensu eta gogoeta, mila dorre eta gaztelu. Egiten zara Aita Saindu, egiten zara errege, aberatsten zara, egiten duzu anhitz balentia (...) Eta, bitartean, eztuzu konsideratzen zuk handik atheratzen duzun probetxua denboraren galtzea dela, eta ez bertzerik”–; supermerkatu-ko atetik gertu apartatu behar

duzula gogorarazteko –“Zer erhokeria da, bada, haur, uste baituzu ezen gero karga handiarekin hobeki manaiatuko zarela, orai ttipiarekin baino?”–; eta, azken finean, kapitalismoa xehe-xehe deskribatzeko –“guztiok gaude preso, guztiok gaude mundu hunetako garzele hunetan heriotzera kondenatuak”–.

Laburkiro, soil-soil eta maisuaren hitzekin esateko, beraz: “Aitzinean du-zuino, probetxa zakitza”. Ez utzi *Gero* beste momentu baterako, izan ere, “Zergatik utzi behar dugu geroko, ez berrogoi egunen, baina baten ere segurantzarik eztugunaz geroztik?”. ●



BABESLEA:

LEZO
EUSKARAGARRI



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

Zuhaitzak askatu du hosto hila

Ukapena, zalantzak eta beldurra ohikoak ditugu heriotzaz mintzo garenean. Ez da humanoa, ordea, heriori lotutako panikoa, baizik eta kulturala. Hemen eta orain ukatzen dugu heriotza. Hemen eta orain sortzen digu antsietatea, beldurra eta izua. Pentsamendu bitarrean eta kapitalismoak ezarri duen denboraren kontzepzio linealen hazi garenontzat zaila da hiltzeko beste modu batzuetan pentsatzea, bizitzaerakoan ere beste modu batzuetan pentsatzea zaila zaigun moduan. Jolas dezagun: ibili inguratzen gaituzten basoetan, itsasoetan, zelaietan, erreketan, mendietan. Hartu arnasa. Itxi begiak eta ireki bihotza. Erantzun galdera honi: zer da hiltzea?

 AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Bizi-bizirik dagoen armiarma batek sarea josi du basoan. Zuhaitzak hosto hila askatu du, eta harrapatuta geratu da sarean. Eguzki izpiak hostoa argizatzen du, eta haizearen ferekak hostoa dantzan jarri. Bizitzak heriotza eusten du dantza leun eta argitsuan, gozo eta eder.

Ez da hainbeste denbora pasatu etxean hiltzen ginenetik, etxekoek zainduta eta etxekoen artean azken hatsa ematen genuenetik. Ez da horrenbeste pasa etxean beilatzen zenetik, hildakoari etxean negar egiten zitzaionetik eta hilberriari denen artean azken agurra ematen zitzaionetik. Labayruren Euskal herriko atlas etnografikoaren liburukietako batek (*Heriotza ohikuneak Euskal Herrian*) heriotzaren inguruan egon diren ohiturak jasotzen ditu. 85

herritan egindako landa-lana da, zazpi lurraldetako, Jose Miguel de Barandiaran eta Ander Manterolak zuzendua. Ikertzaile ugari parte hartu zuten libururen osaketan. Lan sakona eta luzea da eta hiru atal nagusi ditu: heriotzaren aurretik egin behar ziren prestaketak; heriotzarekin lotutako agonia, heriotza bera, hildakoan igaro beharreko pasabidea edo arimaren patuarekin lotutako gauzak; eta hil ostekoak, dolua nola adierazten zen etxeetan, heriotzaren jakinarazpena nola egiten zen, hildakoa nola beztitzen zen...

Liburuan, eliza katolikoko errituekin lotutako informazioa jasotzen da batez ere, eta horri gizarteak bizkarra eman dionetik, heriotza duintasunez tratatzeko tresnetan umezurtz geratu gara. Ospitaleetan hiltzen gara, askotan

ezezagunez inguratuta edo bakarrik, heritik kanpora dauden beilatoki hotzetan despeditzen ditugu senide eta lagunak, eta kasu askotan ez dago behar bezalako agur kolektiborik. Malkoak gorde eta jan egiten ditugu, soilik dolu indibidualak eginez.

Jada balio ez digun eredia baztertua, modu berriak sortzea pentsatu baino zailagoa izan daiteke –salbuespenak salbuespen, Eibarren aspalditik egiten dira hileta zibilak, adibidez–, baina sorkuntza lantzeko aukera paregabea ere izan daiteke. Gemma Polo eta Sophia Stylerekin egin dudan formakuntza batean egin dizkiguten galderetako batzuk botako dizkizut zuri ere: nola hil nahi duzu? Zer egin behar duzu azken bidaiari hori prestatzeko? Nor zara zu? Zeintzuk dira zure beldurrak? Nolako hileta izango da zurea?

Aurreko galderak horiek nire amaren heriotza ekarri didate gogora. Zuzenean ikusi dudan lehenengo heriotza izan zen. Amaren lehengusina Oñatitik etorri zen amamari agur esan eta guri konpainia egitera. Goserik ez, artean, eta tortilla bana egin nuen bakoitzarentzat, tripa hutsik ez edukitzeko-edo. Amamarekin genituen oroitzapenak elkarbanatu genituen barre eta negar artean, ilundu zuen arte. Ama ohean sartu zen eta ni azkar harrapatu ninduen loak. Amamaren alboko ohean egiten nuen lo orduan. Lehengusina aulkian eseri zen, eta esna egin zituen hurrengo orduak. Zerbaitek esnatu ninduen bat-batean. Ama logelan zegoen. Lehengusinak ere bertan jarraitzen zuen. Amamari begiratu eta eskutik heldu nion. Azken bi arnasak egin zituen, eta kitto. Ez zen ezertxo ere aldatu, baina dena aldatu zen. Tristura eta hutsunea utzi zizkigun Doloresek joan zenean, baina maitasun handiz gogoratzen dugu une hori. Maite genuenok lagunduta joan zen, giro goxoan, bakean.

Lurrari lotuta dauden komunitateek ondo dakite heriotza aldaketa dela, hau da, heriotza gehiago dela bizitzaren sinonimo, antonimo baino. Giza-talde horiek ahozko tradizioetik jasotako istorioen bitartez eta erritu zein ekintzen bitartez integratzen dute heriotza bizitzako parte gisa. Gloria Steinem aktibista feministaren *My life on the road* (Nire bizitza errepidean) liburuan honela esaten da: "Ez da harrizkoa ahozko historia idatzizkoa baino zorrotzagoa izatea. Lehenengoa, bizi izan zuten pertsona askok kontatzen dute, eta bigarrena, berriz, bizipen hori izan ez duten gutxi batzuk idatzi dute".

Begira zer gertatzen zaion *Aitonak utzi zidana* (Txo eta Txalaparta, 2022) liburuko aitonari ere. Aitona eta Gloria, biloba, egunero joaten dira hondartzara. Gizon zaharrak egunetik egunera abileziak galtzen ditu, hondartzan utzita: indarra, malgutasuna, ikusmena, bizkortasuna, entzumena, oroimena... Hori ez daki Gloriak. Dena dela, adinean aurrera egin duelako, aitonarekin hondartzara joateari utziko dio.

Halako batean, aitona, umore ederra duen pertsona izanik, irribarretsu hilko da, maite dutenez inguratuta. Gloria, gero, anaia txikiarekin hondartzara joaten hasiko da, eta bertan aurkituko ditu aitonak utzitako guztiak: hortzak, ikusmena, bizkortasuna, indarra... Umorez, ideia simple baina sakon batekin ekartzen du Glòria Granell Barbera idazleak bizitza eta heriotzaren inguruko begirada. Ahozko tradizioa eta ziklikotasuna ekartzea lortzen du idazleak, proposamen moderno eta originala eginez.

Erljioa, filosofia, zientzia, antropologia, biologia, medikuntza... Diziplina guztietan saiatu da jendea heriotza zer den esplikatzen. Baina begiratzen zaion lekutik begiratuta ere, beti falta da zerbait. Misterio kutsua ematen dion zera hori du heriotzak. Nire buruari galdegin diot ea heriotza ondoen azaltzen duen diziplina ez ote den literatura: errealitate koilarakada bat, fikziozko ehun mililitro, ongi nahastu eta *buala!* Egiantzekotasun pixka bat maila sinbolikora igo eta magia: erantzunik gabeko galdera gehiago sortzen dira. Ez al da hori heriotza? ●





Hitz gezidunak

FIJIKO BIZTANLE HARRITUTA	SAIETAK JAURTITZEKO LEIHOA MODU ATZIZKIA	GORROTO BIZI (BIZKAIAN)	JOSU SANTESEBAN		ARROKA BOLKANIKOA KAPOI	ENTZUMENA GALDU ... POZEZ	FRUTU TROPIKALAK AGIRIAK IDAZTEN DITUENA
BITXIA MUSIKA ESTILO					PERTSO-NAIAREN ABIZENA LOGOTIPO		
	AZPI, BEHE (ALDERAN-TZIZ) UDABERRI		FUTBOLEAN, TANTO LASAI		FEREKA PERTSO-NAIAREN IZENA		
AUTONOMIA DUENA TXERRI					NAFARROAKO MENDIA GAIXOBERA, GAIXOTI		
		ALOKAIRU ELIZAREN ATALA				GOROTZA BIZILEKU FINKORIK EZ DUENA	
NOLA EDO HALA	NAFARROAKO HERRIA DESIRA ADIERAZTEKO HITZA			ZEINENA ITSASO, HITZ ELKARKETAN			DIRUDIENEZ
					NORABAIT ARRAZA, KASTA		
XENONAREN IKURRA ALTZARI HANKADUN		PIPIAK, ZEDENAK ARDI, HITZ ELKARKETAN				SAMIN, OINAZE FRANTSESEZ, KALEA	
			MOJA, LEKAIME OMEN				TENPERATURA IKUSI (LABURDURA)
ADURRA, ELDERRA PANTEIS-MOAREN ALDEKOA				ITXURAZ TONA			
						GALDEZKA	

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

9	1		7	5		4		
8	4		1		6		5	
2			8	4			9	
5						9	6	
4					9	3		
		9		3		2		8
			3			8	7	
7					8			4
3		4	5	1	7		2	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Landa, at.
- Dudarik gabe, benetan.
- Nire.
- Bikotea.
- Onez ..., asmo onez.

EBAZPENAK

1. KANPO
2. AREAN
3. NEURE
4. PAREA
5. ONEAN

6	2	9	7	1	5	8	3
8	4	5	1	7	6	2	9
7	2	1	6	8	9	6	3
5	3	5	3	4	8	7	1
4	6	8	2	7	9	3	1
3	9	6	3	5	2	4	8
2	5	3	2	4	8	1	9
1	8	4	3	1	9	6	7
9	1	6	7	5	2	4	8

V	A	K	V	E	V	T	S	I	E	L	N	V	P
Z	I	D	I	U	R	I	V	E	R	D	E	R	L
T	V	O	R	O	R	S	E	I	V	H	V	M	
N	I	M	K	A	V	S	I	T	S	E	X		
V	R	O	I	N	I	T	A	B	V	A	L	O	N
V	A	N	E	N	O	N	S	A	R	V	A		
K	K	E	R	G	E	R	O	V	A	L	O	U	
V	Z	V	U	O	M	O	N	O	T	O	V	U	
N	V	Z	L	V	L	G		P	E		I	O	
V	R	D	O	B				V	A	I	O	J	
N	I	O	P	G				Z	A	R	A	M	
V	G	L						S	F				



EUCALYPTUS

TESTUA: Nerea Ibarzabal, Jon Ander Urresti, Matxalen de Pedro eta Beñar Urrutia.

ZUZENDARI ETA DRAMATURGOAK: Matxalen De Pedro eta Jon Ander Urresti.

AKTOREAK: Jon Ander Urresti eta Beñat Urrutia.

NON: Lugaritz kultur etxean (Donostia).

NOIZ: Urriaren 20an.

Naturaren aberastasuna

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

Eukaliptoaren hostoak laukizuzenak dira, finak eta luzexkak, angelu zuzeneko lau puntakoak, erliebea dutenak, konplexuak, xuabeak, paperezkoak. Zigilu bana dute: zenbakiak, irudiak eta sinboloak, eta kolorearen araberako balioa. Billeteak dira.

Usain ederra dario antzezlanari. Sinopsiak eta sarreran botatako eukalipto esentziaren dosiak eroso esertzera eraman nau. Bihurrikeriaren tankera hartu diot hasieratik: metaforaz, esanahiez eta kritikaz beterik datorkidalakoan nago, umorez eta ironiaz, zuzen eta zeharka, argi eta garbi arituko dena. Hala izan da.

Euskal Herriko basoak jada ez dira basoak, landaketak dira. Antzerkian egiten duten nahigabeko hausnarketetako batean diote. Eukalipto bertako basoetara ekartzeak naturala ez den natura sortzen du, interes ekonomiko bati erantzuten diona. Matematika da, zenbakiez ari bagara, hamabost urtetan enborrak

bota eta saltzea 40 urtetan egitea baino azkarragoa dela esaten diguna, denbora laburragoan irabazi handiagoa. Pentsaera kapitalistak besterik ikusten uzten ez digunez, aukera onena dela erabakiko du naturaren gainetik pasa eta munduaren jabe eginez.

Obra nahiko narratiboa da. Hitzak garrantzia handia du eta, nire gusturako, irudiak gutxitxo. Dena den, momentu ederrak eskaintzen dituzte, eskuak antzezle bihurtzen direnekoak, esaterako, edo enborra irudikatze haitetako baten gorputzak hartzen duen sendotasuna. Esanguratsuen argiekin egiten duten jolasa da: berdea zuhaitzetarako, gorria ustelkerirako... Etengabe eraldatzen dituzte eta horrek agerpena jantzen du. Eszenako elementu guztiak artifizialak dira, obraren ikuspegia indartzen dutelarik. Naturala den bakarrik aktoreen euskara da; jatorra eta sana, bizkaiera, betierekoa eta eskertzekoa, bide batez.

Interesgarria da jokaera eta logika honez hitz egiteko naturara jo izana, ez baita ohikoena. Obra honek erre-kurtso naturalen esplotazioaz hitz egiten du publikoa probokatzeraino, eta eukalipto erabili arma kapitalista gisa. Bi protagonistak kontraesanez beteriko basozainak dira, euren ondorioetara pixkanaka iristen direnak, euren errealitatetik hitz egiten dutenak. Euskal Herria berde eta ekologista batean kokatu dute istorioa, hura ere erosi egiten dela kontatu eta hainbat ideal lurperatuta. Obraren hasierak kobertura ematen du gai potolo honen gainean barrez hasteko. Protagonista, zuhaitzaren gorputzean, exotikoa bilakatzen hasiko baita, esentzia propioa bilatzen, originala izaten, abariziosoa, lizuna, berria, erakargarria, handia, onena. Nor ez da sentitu inoiz eukalipto? Eta nork ez du inoiz amestu udazkenarekin? ●



Patxada



EITB

BIHOTZ-MUSEO BAT LEIRE VARGAS

ELKAR, 2024

BESTIAK LIBURUTEGIA

Gazte-egarri da euskal kultur sistema. Horixe zioen Leire Vargasek *Berria*-n idatzitako zutabeen. Odol freskoa nahi du industriak: askotarikoa eta dibertsoa. Azkenean, baina, izen berberak agertzen zaizkigu han eta hemen. Askotarikoa eta dibertsoa bai, baina deskuiduan eskukada-bat izenek hornitzen du gure kultur-parrilla. Hala ulertu genion. Oximoronak badauzka albo kalteak –agian hain alboko ere ez direnak-. Nola sortu patxadaz, kultur sistemaxo honen egarritzarra asetzen egonez gero? Nola eman denbora idazteari?

Kulturaren logika irensle horren kontrakarrean dago idatzita Vargasen bigarren poemategia. *Dena ametsa den irudipena* argitaratu eta hiru urtera iritsi da *Bihotz-museo bat*, berriro Elka-


rrekin. Ez dakigu denbora asko ala gutxi den, baina idazketari nabaritu diogu patxada bat gurean, batzuetan, faltan sumatzen duguna.

Liburuak *ni* bat aurkezten du, eta “niaren” gorputzaren materialtasuna gordinki erakutsi: “Larrua erauzi didate / formabako haragia naiz orain / odoluholde basari eusten/ ezinean”. Halatan, hizkuntza iritsiko da gorputza iristen ez den lekuetara, hizkuntzak ezinbestean baldarki eraldatuko badu ere adierazten duen hori: “Orain hizkuntza badugu / baina gure mihiak urrun daude / nahiko luketena ahoratsetik”. Iritsi nahi eta ezin, hizkuntzaren ezintasunak dakarren gatazkan egiten dute aurrera poemek nolabaiteko soluzioa aurkitu arte: mundua sartzen du hizkuntzaren

gorputz-atalaren barruan. Sartzen ditu “amapolak ahoan”.

Gatazka hiru ataletan dago banatuta: *Itsasaldia*, *Hondarrak* eta *Etxe berri bat*. Lehenengoan, hizkuntzak balio du baina ez, galeraren minaz jarduteko. Bigarrenean, itsasaldiak utzitako hondarrakin ari da borrokan ahotsa: “Atzera begira / erraza da / gauzei su ematea”. Azken atalean su emandako horrek bide ematen dio “bestelako” etxe bat eraikitzeko, “aurrera begira / ordutik geratu zitzaizkidan errautsetatik / irudi berriak / ateratzeko”.

Tira, ez dakigu esan behar denik ere, baina halako liburu bat ezin da idatzi ez bada soseguz. Gazte-egarri ariko da euskal kultur sistema. Guk, hala ere, patxada nahiago dugu. ●



MUSIKA

Izan ginelako... landuko dugu!



LABERINTUAK MANIAKS

AUTOEKOIZPENA, 2024

IKER BARANDIARAN

O hiko da gaztaroaren borborrean musika taldeak sortzea, eta non eta Arrasaten are gehiago. Baina talde bat sasoiaren eusteak esfortzu eta konpromiso handia eskatzen du, eta tira egin ezean denboraren eraginez hasierako indarra lausotzen joaten da. Horregatik sorpresa hartu dut Maniaks taldearen itzuleraren eta diskoaren argitalpenaren berri izan dudanean. Gogoz dator hirukotea eta dirudienez ideiak oso argi ditu.

Maniaks 2011 inguruan sortu zen eta tarteka zuzeneko gutxi batzuk egin bazituzten ere, lozorroan egon da luzaroan. Hala, orain bestelako ideiak eta estiloak barneratuta eta beste bateria-jotzaile batekin, Never Surrender-eko Atxirekin, talde berrituak egin du agerpena.

Urrun gelditu da iraganeko punk eta *oi!*-arekiko atxikimendua; eta nahiz eta DNAn badituzten, bestelako sonoritateetan dabilza orain oso motibatuta.

Sei kantuk osatzen dute estreinako lana, guztiak euskaraz abestuta, ahotsaren presentzia nabarmenarekin eta hiru minuturen bueltan dabiltzanak. Nabarmenezkoa eta poztekoa da rock-and-rollaren esparruan kantu guztiak euskaraz abesteko hautua egin izana. *Deabrua* da lana dotore zabaltzeko ardura duena: melodiak pisu handia daukan punk-rock indartsua, Hellcopters *riff*-etan eta Heriotza zenbait erritmotan –belaunaldietako uztak– gogora ekarri dizkiguna. *Laberintuak*-ek, aldiz, badauka *oi!*-aren eta sustraiaren esentzia, baina baita ere, esaterako, Vicent Von Reverb-en ahots

dikzioa, beti ere gitarra distiratsuekin. *Kolorezko kateak*-en ere presente dago itsaskorra eta era berean melodikoa den punk-rock bizia.

Diskoaren B aldea *Zainetan hit!*-ak zabaltzen du, punk-rock-and-rollaren baitan indartsu, Dreggen eta Nicke-ren hastapen rockeroak zein Powder Monkeys-en gisako *aussie* esentzia azaleratuta. Jarraian, *Bihotz errebeldea*-n, Europako undergroundean hardcore melodikoaren bidea zabaldu zutenen afinazio eta melodiak, *oi!* oroitzapenak eta gitarra rock-and-rolleroak batzen dira. Eta, diskoa ixteko, *Azken mohikanoak*-en tenpo erdiak, malenkonia eta 1980ko hamarkadako gitarra garbiak lantzeaz gain, ahotsen beste pauso bat ematen dute. ●

Aita eta ama primuak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Pertsonen arteko harreman sexu-afektiboetan hainbeste transformazio eta kontzeptu berri asimilatu beharrean gauden garai honetan, ipargalduerak geratzen zaien portu seguru bakarrenetakoa izango da, seguruenik, inztestuari buruz duten iritzia. Horretaz ez baitago eztabaida handirik. Jane Austen parafraseatuz, egia unibertsalki onartua da hori ezetz. Inola ere ez. Ezta okurritu ere. Gainera, inork tabua auzitan jartzeko atrebentzia izango balu, topo egingo luke familia bereko kideen arteko sexuketa debekatzeko argudio-kolekzio handi batekin, arrazoi erlijioso-moraletatik hasita –alegia, sineskeriatik–, biologiaraino –alegia, zientziaraino–, bien tartean dauden tramankuluen ekarpenak ahaztu gabe –soziologia, psikologia–.

Eta hala ere, zalantza eta noraezaren garai honetan, arauaren josturak non dauden ikustea ez da kontu zaila: haurrideen artean, edo gurasoen eta seme-alaben artean, debekua oso argi dago, noski. Baina familia noraino iristen den eta, beraz, zein familiaritasun gradutik aurrera den haizu ñir-ñir egitea –edo, bestela esanda, abominazioak noiz egiten dion leku praktika sozialki onartuari–, konplikatuagoa da.

Galdetu bestela Montessori materialez eginak diruditen Europako herrialdeetan. “Eskandinaviak muga jarriko die lehengusuen arteko ezkontzei”, leitu nuen igandean, munduko zer gauzarekin amorratu behar nuen jakiteko eskutan hartu nuen paperean.

Norwegian uda honetan debekatu dituzte kusi-kusinen arteko ezteiak; Suedian 2026tik aurrera bukatuko da primadera; eta Danimarkak ere, iparraldeko lehengusuen –ups– bidea jarraitzeko asmoa dauka.

Gauzak baditu bere tolesdurak eta zimurrak, ez pentsa. Neurri aurrerakoitzat hartu dute batzuek, kontuan izanda, adibidez, Norwegian lehengusuen arteko ezkontza gehienak behartutakoak direla. Horrelako rolloei buruzko bromatxoak egiteko gogoia derrepentean desagertu zitzaizkidan, artikuluan irakurri nuenean kasu bat, zeinean gurasoek beren lau urteko alaba entregatu zioten ezagutu ere egiten ez zuen lehengusu-senarrari. Ahaztu gabe aurrerago aipatzen ziren “ohore delituak” –horrelako esposatzeak onartzen ez dituzten emakumeen kontrako erasoak, alegia–.

Ondo debekatua, beraz. Dena behar den lekuan dago Eskandinaviako partean. Beste behin ere, bidea zein den erakusten

dute Suediako, Norvegiako eta Danimarkako monarkia parlamentarioek. Hum. Monarkia esan dut? Bai, monarkia esan dut. Eta lehengusuen arteko ezkontzak debekatu(ko) dituztela? Kontxo, lehenago hastea zuten: disgustu batzuk eta hemofilia kasu ugari aurreztuko zizkioten beren buruei, gauza jakina baita familia noble horietako odol-nahasketak arriskutsuagoak izan direla garai bateko txirritularitza profesionalean modan egon ziren autotransfusio famatu haiek baino.

Edonola ere, kontuak badu usain arraro bat. Are gehiago, eskuin muturrak sostengatutako Suediako gobernua gai honekin topera nola jarri den ikusita. Klaro, asuntua zera da: honezkero susmatuko zenuten moduan, horrelako ezkontza odolkideak, gaur egun, herrialde jakin batzuetako etorkinen gauza direla gehien bat. Eta artikuluan aurrera egin ahala irakurtzen denez, adituen arabera betiere,

lehengusuen artean ezkontzeko aukera kenduta, asko gutxituko lirakeela familia batzeko helburuz egiten diren kate-migrazioak.

Notizia irakurtzen bukatu nuenerako, sentitzen nintzen Ikean erositako altzari guai bat pausoz pauso montatzen hasi, eta Giorgia Meloniren eskultura bat atera izan balitzait bezala. Bizi garen garai honetako beste notizia europar askorekin ere gauza bera gertatzen zait, noski. Baina nik aste honetan hau ekarri nahi izan dizuet, nire buruari erakutsi nahi izan diodalako gai naizela lehengusuen arteko ezkontzei buruz idazteko, testu osoan behin ere Oñati aipatu gab... oh, kaka zaharra. ●



Garbiñe Larrea

ren liburu berria

GARBIÑE LARREA

KOSMETIKOAK

Sendabelarrekin



Zuk zeuk egitearen ederra

Liburua **28€**
azoka.argia.eus

Urriaren 31tik azaroaren 15 arte
eskaintza berezia:

→ ARGIAkoa eginez gero liburua opari
argia.eus/eginargiako

→ ARGIAko kidea bazara 26 €-an
azoka@argia.eus +0034 943 37 15 45



URNIETA

Mendia, natura eta lasaitasuna

Herriko ingurune naturalak eta berdeguneek plan morderoa eskaintzen dituzte aire zabalean:

Adarra (PR-GI-203) eta **Onddi (SL-GI-43)** mendietako ibilbideak,
Muniskuegainako multzo megalitikoak, Santsonarri, elurzuloak eta **karobiak**.

Donostiatik 12km eskasera kokatua dago eta ostatu-eskaintza zabala du.



Informazio +